

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN
ERRI AKADEMIA

XLI Zenbakia.

1997

Urrilla-Gabonilla

AURKIBIDEA

Orr.

"Latxaga" euskerazain.– Joxemari Murua. (Barruko orrialdea)	
Antoine D'ABBADIE. Bere euskal ardura eta lanak.	
Itzaldia.– Latxaga	1
Olazar tar Martin'en erantzuna	29
Itzaldi bitarteko bertsoak.– Paulin	31
Ueska'ko Euskerari buruzko gure saiaketen egoera.– B. Latiegi	32
Bizkaiera.– Gipuzkoera. Berdin eta ezberdin	
II Ezberdintasunak.– Pedro Puxana	45
Mañu Oñatibia.– A. Zubikarai	64
Maria Dolores Agirre.– A.Z. (Atzeko orria)	
Esaerak.– Olazar (Atzeko azalean)	

Zuzenbideak:

**GETARIA 21 - DONOSTIA
C. LARREATEGI 14 - BILBAO**

LATXAGA EUSKERAZAIN

(Joxemari San Sebastian Zubillaga Doktorea)

2. Euskerazaintza'n jorratzen degu
euskal mintzoaren sena,
—eusker bere euskalkiekin—
sustraj; zaarraren sorpena.
Jarrai dezagun bide ortatik
sortu ez dedin etena,
gorde dezagun antziñakoa
degun euskaldun izena.
3. Euskera zaintzen zu benetako
Euskalerrri'ko gizona;
antropologo, teologari,
ta izkuntzalari ona.
Guzti oiekin doktoradutzak
sortu du zuregan sona,
orren lekuko ta egizatzen
antxe Paris'ko Sorbona.
4. Euskerazaintza'k oroitzapena
otoiz onaren modura;
nola aaztu gaur zendutako
jarduna eta ardura?
Jaungoikoaren deia artuta
zeruan dute bilkura
jaso dezagun aien bitartez
andik datorren onura.


Joxemari Murua'k

Laguntzalleak

Gipuzkoako Aldundia



Eusko Jaurlaritza



EUSKERAZAINTZA

I.S.B.Ñ.: 1132-1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Konponketa: Flash Composition, S.L. - Bilbao

ANTOINE D'ABBADIE

BERE BIZITZA

BERE LANAK

BERE IDAZKIAK

NIKOLAS SORALUCEKIKO ARREMANAK

AGUSTIN CHAHO'REN LANKIDE

OLERKI-LOREZKO JAIK

EUSKAL GIROAREN BIZIGARRI

VINSON'EK EGINDAKO LANAREN OÑARRIA.

**San Sebastian'dar Jose Mari, "Latxaga"ren itzaldia
Donosti'ko Yosulagunen aretoan,
EUSKERAZAINTZA'n bere sarrera ospatzean,
1.997'ko Orrilla'ren 31-an.**

BIXENTE LATIEGI'REN AURKEZPENA

"Aurkezpena Latiegi'tar Bixente'k egingo dau iru minutuz", agintzen dit gure Euskerazaintzako idazkari bizkaitarrak.

Iru minutu ez dira asko, baiñan geiegi ere izan daitezke. Ez dira asko edo-zer gauza zentzuz egiteko, baiñan geiegi ere badira euskeraz, aurkezpena egiteko. ¡Ain ezaguna dan gure Joxemari onek aurkezpenen bearrik ez bait du"

Alare, baditu gure Joxemari'k iñork ezagutzen ez dizkion duintasun bikaiñak. Duintasun oiek, "Naparroa'ko Egunkaria'ren asteroko Euskal-Orrian idazten dugunok arras maite gaitun ez-ezagun batek aįzatu dizkigu.

Orri ortan idazten dugunok, *Gipuzkoa'ko semerik atzerakoietak, pentsamoldez meharrenak, kaskoz hertsienak, eta jokabidez estuenak*" ornen gera. Ori dana izatera iritxi ba'gera, zer geiagorik?, zoriontsu ta aintzagarri daįtekean zer geiagorik eska dezakegu mundu ontan?

Usai gozoko lore pozgarri oiek danak, Iruña'n agertzen dan "KARRIKA" izeneko aldizkaria batean neri eta Latxaga'ri, baiñan bereiziki Latxaga'ri opalduak izan dira, Latxaga bait da, orri ortan idazten degunotan izenik aundikoe-na.

Badakizute ba:

—Latxaga, *Gipuzkoa'ko semerik atzerakoietak da*. Paris'ko Ikastetxe Nagu-sietan, "suma cum laude", "aintzarik aundienaz", iru doktoradutza irabaziak dauzkan gizona, *Guipuzkoa'ko semerik atzeratuena da*.

—Sorbona'n Euskeraren aditzari-buruz bertako irakasleak arriturik utzi, eta Sorbona'ko "thése d'état", (esate baterako, "unibersitatearen dotriña") biurtu zuan tesia idatzi duan gizona, *"Gipuzkoa'ko semerik pentsamoldez meharrena da*.

—Ameriketako Laterri Alkartuetan, bere burua ango bįztanlerik aulen serbitzura jarri zualako Ispain-Amerikarren apostolutzarako Idazkari Orokorra egiña izan zan gizon au, gure Joxemari, "Gipuzkoa'ko semerik kaskoz estuena da.

—Laterri Alkartu aberats aietako jende txiroek —beltzek eta mexikotarrek bereiziki— eraman oi duten biziera negargarria ikustean, errabi santuz beterik, liburu bat argitaratu zuan gure Joxemari'k, Elizako gotzai eta apaizen nagikeria gogorki salatuz. Ain gogorki ere...! Izaturik, Laterri Alkartuetako jerarkiak, liburu aren ale guziak erosi bait zituan, an esaten zana mundura zabaldu ez zedin. Bañan badakizute: Iñorenganako bildurrik gabe egia babestearren alako liburu-a idatzi zuan gizona, gure Joxemari au, *Gipuzkoa'ko semerik jokabidez estuena da*.

Nere lagun zintzo eta adiskide maite onen aurkezpena egiteko zerbait geiago esan bearrik bait ote det?

Bai. Badut geiago zer esanik. Auxe:

Zozionsua izango litzakela Gipuzkoa, zoriontzuak izango giñakela euskotar guztiok, ametsezko mirarį lilluragarri baten bidez Gipuzkoa'ko seireun-zazpireun gizakume danak seireun-zazpireun Latxaga biurtuko ba'lira.

Latiegi'tar Bixente

"LATXAGA"REN ITZALDIA

ITZAURREA ESKER ONEZ

Euskerazaintza'ko lankide benetakoak, senide maiteok, entzule euskalza-leak. Jaun, andreak

Nere itzaldiaren aurretik, eskerrak agertzeko garaia dator, aurrena elkarte onen ateak zabalik iriki dizkidazutelako.

Euskerazaintzan anai batzuen besoak arkitu ditut, nere bizkarraren gañean. Zuek eman didazute aldiro adiskidetasuna, itz sakonak, itzala onuragarria, arrera ona. Nere asmoak agertzeko aukera ere zuen taldetik etorri zaizkit. Euskal alorrean, atsa artzeko giroa ere, zuen artean arkitu dut.

Zuei esker, Euskalerrriaren alde lana egiteko bidea eskuratu zait, baita ere zuen artean gizona izaten ikasteko gogo sortu, "Gizona gizon", "Itza itz" dio euskal esaera zarrak. Zuekin batean landu ditut, baita ere Euskalerrria maitatzen alegindu eta zoriontsu nere burua arkitzen lasaitu eta gaUrko elburu batzuek osatzen aurrerratu, batez ere, ikasiz nola lagundu gure euskarari eta nola atera gure izkuntza oker-bidetik.

Gaur, euskararentzat, okerbiderik aundiena, "Erromanze" izkuntza burtzea izango litzake: joskera ta itz arrotzez josita, bere ortan uztea. Euskara izkuntza guztiz berexia da eta beste izkuntzen ankapean ibiltzeko ez da jalo. Gure euskara erriak egin du eta erriaren arkituko dugu osasuntsu, dizdiraz jantzia.

Berriz eta berriz aitortzen dut anai bat bezala artu nauzutela, baita asko eman ere.

Gaurko egun berexi onetan, guretako kide batzuek gogoan artu nai ditut. Aurrena, Aita Santi Onaindia, aundia aundienetakoen artean: aritzaren antzeko gizona, sendoa ta olerkari txapelduna.

Orain dela gutti joan zaigu ere MANU OÑATIBIA, parerik gabeko gizon ziñezkoa, adiskide benetakoa ta langille neurririk gabekoa. Zulo ederra utzi du gure artean. Gizon oiekin bizitza oso bestelakoa da. Bide luzea egin bearke dugu gizon oien emaitza jasotze arren.

Orain nere sarrera zuen artean ontzaz emana izan dedin itzaldi bat egingo dut gure kultura sakonduz, inoiz ikertu gabeko gai eder bat erabilliz.

Elburu eder oneri erantzuteko, euskaldunen zaindariari, San Migel'eri, indar berexiak eskatzen dizkiot, baita Gure Andra Mari'ri, erriaren maitasuna ta Gogo Gurenari, sendo irauteko jakintza.


Zuen baimenarekin astera noa.

ANTOINE D'ABBADIE'REN ESKUTITZ EZEZAGUNA SORALUZE'RI EGIÑA SARRERA

Idazlanaren izenburuan gauzak garbi esanak daude. D'Abbadieren esku-
titz ezezaguna azaltzera goaz. Nikolas de Soraluze Donostia'r idazleari adiera-
zia dago.

Gauzak ondo egin nai ditugu. Lendabizi, eskutitza nolakoa den ikus deza-
ten, osorik argazkietan emango dugu. Orren ondotik, eskuz idatzita dan esku-
titz, irarkoloso izkiekin, osorik agertu naiko genuke; idazkiaren mamia, itz
denak oso ondo ulertzen direla. Irakurleak errex ikus dezake zer dagon esal-
dien barrenean.

Azkenean gure ikerlana dator, luze xamarra, bear bearrezkoa dena ta eus-
kal kulturaren aldetik aberatsa. Berri asko ematen ditugu. Gure idazia irakur-
terakoan, adi adi egon, arren.



IDAIZLEAREN ESKEINTZA LIBURUAN AZALAREN GOI ALDEAN

"Offert à Nicolas de Soraluce y Zubizarreta, Correspondant de
l'Academie Royale d'histoire et
Consul de la république Argentine
par l'auteur survivant"

Antoine D'Abbadie
(de l'Institut)

NICOLAS DE SORALUCE'REN IDAZKIA: LIBURUEN ZERRENDA
Obras marcadas pr. Mr d'Abbadie con lápiz, interesado comprarlas

Autores	TÍTULO DE Obras	Observaciones
W Garibay, E.	Historia de España de 1571	Me costó los 200 reales por casualidad, y no hay de venta.
W Egaña, B.	Historia y demás de 1788	No hay de venta.
Mercier y L.	Guía Album de Guipúzcoa, 1867.	Cuesta 8 reales, lo mismo en Español que en Francés

	Manterola,	Guía de Guipúzcoa y de San Sebastián	Cuesta 8 reales.
	Moret y P.	Historia de Fuenterrabía 1638	No se venden ya.
W	Gainza, L.	Historia de Irun, 1738	" " "
	Camjino, J.	Historia de San Sebastián 1798	Publicóse cosa de un tomo en 1870, pero no el 2º.
	Ogarrio, T.	Historia de San Sebastián, 1857.	Se acabó de vender.
	Siguenza, P.	Historia de Alzolaraz, siglo XVI.	No hay.
	Erauso, C.	Historia de la misma, 1625	No hay.
	Oquendo, M.	Historia de Oquendo, 1666	No he visto más que un ejemplar en el Archivo de la Academia.
W	Madrazo, F.	Historia de Zumalacarregui, 1844.	Se agotó la edición según me dicen.
	Zabaleta, M	Sermón de San Antonio 1786.	No hay de venta.
	Irazusta, J.	Doctrina Cristiana 1871.	Es reimpresión y costará poca cosa.
	Aguirre, J	Pláticas Doctrinales 1803.	Se reimprimió, pero no sé si hay.
	Irigoyen, J.	Diccionario de Apellidos, 1809.	Imposible de conseguir.
	Sorreguieta, T.	Triunfo de la semana hispano-bascongada 1805.	" "
	Echeverria, J.	Dev. de Sn Francisco de Sales, 1868.	Valdrá unos pocos reales.
	Latasa, M.	Vocabulario Cuatrilingüe, 1865.	Es pequeña y vale 12 r. escasos. Es con figuras.
	Antia, M.	Camino del Cielo 1868 y 1869.	La 1ª sobre 4 r. ejemplar y la 2ª es de 6 rs.
	Anónimo	Pasos de Jesucristo 1869.	No recuerdo su valor pero es pocos reales.
	Un Pbro	Camino del Calvario, 1871.	" " " " " "
	Astigarraga	Diccionario manual vascongado.	" " " " " "

Las obras arriba indicadas con el signo siguiente W, que son los 4 tomos en folio, de Garibay, 1 en folio de Gainza, 1 en cuarto, de Egaña, y 1 en cuarto, de Madrazo; si el Sr d'Abbadie interesa para leer y tomar datos, yo lo prestaré por algunos meses y le enviaré en vista de su aviso. Alguna que otra de las obras antiguas citadas, pudiera llegar la casualidad, pero es inseguro y difícil, que se puedan comprar. Las demás obritas modernas se comprarán así que reciba aviso, y se le remitirán juntamente con los ejemplares de la Historia general de Guipúzcoa, y con los folletos Catálogo.

ANTOINE D'ABBADIE'REN ESKUTITZA: LENENGO ORRIALDEA

Abbadie prés Hendaye 1871; 9re 29

Mon cher Monsieur

Je vous envoie ci-inclus un exre de ma précoce publication de 1836; elle n'a d'autre mérite que celui de renfermer le premier catalogue des livres basques, et est nécessaire, fort imparfaite. Mon catalogue M. S. dont je ne puis me dessaisir est bien plus complet et je l'ai augmenté des ouvrages que je me suis permis de marquer au crayon dans votre liste ci-incluse. J'achèterais ces ouvrages si j'en trouvais l'occasion. Votre catalogue est ci-inclus.

Votre but ou votre plan n'étant pas le même que le mien, je ne sais si les notes ci-contre vous conviendront; en tout cas elles sont à votre service.

Je vous remercie des exres que vous me promettez de votre histoire: j'en placerai deux ou trois chez des amateurs qui les apprécieront. Je vous remercie d'avance pour les Fueros de Guipuzcoa de 1866.

Vous auriez eu ma réponse plutôt si je n'avais été absent à Pau pour les affaires communales de Hendaye.

Agréé l'assurance de mes sentiments très distingués.

Antoine d'Abbadie

Ouvrages publiés en Espagne en basque ou sur le pays Basque.

1. Adiciones al diccionario de Antigs de Navarra (Yanguas)
Pamplona, 1843
T.
2. A. San Ignacioren ejercioren... (Cardaberaz), editiond
de 1761, 1764 (2 eds), 1790, 1818, 1824, 1850, 1855.
T.
3. Aldareco Sacramendu...(Cardaveraz) 1859, 2 eds., 1862
...T.
4. S. Teresaren...novena. Vergara 1849
5. Amorezco eta dolorezco...pausoac, 1856, 1860
T.
6. Apología de la leng. bascong. (Ortega) Madrid 1803
T.
7. Apuntes sobre la...Navarra (Yanguas), Pamp1.1838...Anotado
T.
8. Arte de aprender la leng. bascong. (Iturriaga) 1841. Tengo
T.
9. Avisu osasunsoac... Bilbon 1860
10. Basserritaar... icasbideac 1803, 1816
T.
11. Bederatz urrena Maria, Tolosan 1857

12. Cristau doctrina (Echeverria) 1822, 1852, 1853 T.
 13. Escu liburua (Añibarro) 1821, 1852, 1854 T.
 14. Bosquejo de la organización de Vizcaya. 1870
 15. Calbarioac... egoquiac. To1.1849 T
 16. Carta a Miguel (Iztueta) S.Seb 1829
 Indicado en Iztueta
 17. Cartas... sobre la leng. baso. (Hervas) 1784
 18. Catal. de los obispos de Pamplona, 1614 T
 19. Cembait Santuren bicitzac S. Seb 1853
 20. Censura crítica (cura de Montuerga) Madr. 1806 (Es Pro.Avila)

MONSIEUR NICOLAS DE SORALUCE

LENENGO ORRIALDEA (GIBELA)

		Nos			
1849					
Novena Sta Teresa	4	X	23	Crónica etc Cantabria, 1681 (Sota)	X
1860					
Avisos buenos	9				
1870					
Bosquejo de Vrya	14	X	35	Doctrina etc Guerrico 1858	X
Cartas Hervas	17	X	36	" " Gorostegi 1864 y 67	X
1853					
Vida de Santos	19	X	40	" " Olaechea, 1775, 84, 1825 y 1844	X
			45	Di lu lengua primera-Ledesma 1620	
			47	Dialecto antiguo Guipuzcoano	
				Madrid 1856 - Anotado ya -	X
			49	Doctrinas Elso 1561	X
			50	- Ochoa 1713	X
			51	- Arzadun 1758 y 1856	X
Y Abbadie ,38 7/. Marineo Siculo				La 1ª vez impresa en vaso. aled. palabras,	
				Miguel Eguia 1533	
X Abbadie,303/ Vocabulario -1642. En español					X

ANTOINE D'ABBADIE'REN ESKUTITZA: BIGARREN ORRIALDEA

21. Ceruraco bide (Antia) Barcelonan 1868 T.
22. Christin jaquinvidea (Moguel) 1805, 1838, 1856, 1821 T.
23. Chronica...y Cantabria (Sota) 1681
24. Aires Vasc. S. Seb (1864) T.
25. Compendio (Pablo Miguel) 1732... (No se de donde es) T.
26. id. fueros de Vizcaya Madrid 1839 T.
27. Comunio (Arrue) 1869 T.
28. Confesino ona... (Moguel) 1803, 1853, 1856, 1800, 1849 T.
29. Confesioco (Aguirre) 1803, 1823, 1868 T.
30. Congressiones(Moret) 1766 T..T.
31. Constituciones de Roncesvallis. Pamp 1791 T.Anotado
32. Cristau Doctrina (Irazusta) 1830, 1801, 53, 52, 1742,
1775, 1845, 59 T.Ant.do
33. id id (Lariz) 1773, 1775 T.
34. (Cardaberaz) 1850, 1854, 55 T.
35. (Guerrico) 1858
36. (Gorostegui) 1867,1864
37. (Arrue) 1858, 1863, 1828, 1854, 1855,
54, 56, 1853 T.
38. (Capanaga) 1656 T
39. (Astete) 1862 T.
40. (Olaechea) 1824, 1855, 1787, 1774
41. Crónica (Yanguas) Pampl.1843 T.
42. Curutce Santuaren 1848 T.
43. De la ant.lengua (Andres de Poca) 1587 T.
44. De la leng.Eusquera (Aizquivel) 1856 T. Anot
45. " " " primera (Ledesma) 1620
46. Devociozco (Echeverria) 1821, 1863, 1868 T.Anotdo
47. Dialecto ant.Guipuzcoana...Madr 1856
48. Diccion.(Astigarraga) 1825, 37, 39, 40, 48, 55, 56, 61, 66 T.
49. Doctrina...(Elso) 1561
50. " (Ochoa) 1713
51. " (Arzadun) 1758, 1856
52. Derecho de natur...del pie del puerto. Caragopa 1621 (Zaragoza) No
53. Doncellai (Claret) 1864 T.
54. Egunoroco lan-on (Moguel) 1820 T.
55. Ejercicio (id) 1849 T.
56. Eleisaco (Bartolome) 1819 T.
57. Fuero de Vizcaya 1643, 1574, 1762 T.
58. El Guipuzcoano instruido 1780 T.
59. " verbo regular (Zavala) 1848 T.
60. Ensayo s. la legisl. foral (Egaña) 1854 T.

AZKENEKO ORRIALDEAN (VERSO)

P.S. Quand le pli renfermant mon livre et cette lettre a été présenté hier matin au chemin de fer, il a été refusé comme devant passer par la poste aux lettres.

Comme je passais la journée á Bayonne l'envoi a été retardé. J'étais absent ce soir quand le facteur est venu. Il aurait fait partir demain,mais j'affranchirai le tout á Bayonne demain, en route pour Paris où je resterai jus-qu'a la fin du mois.

ESKUTITZAREN ARKITZEA

Antoine D'Abbadie jaunaren eskutitza, liburu baten barrenean, orrialde irantsia arkitu nuen. Entzun, orain, erosketa orren berrjak.

Ogeiren bat urte dela, Paris'en bizi nintzan, goi mallako Ikastetxe-Nagusian lanean nengillen. Beste askotan bezala liburu zarren saltzalleak ikustera ninjoan bejin.. Ustekabjan euskarari buruz liburu bat salgai arkitu nuen (1). Ganetik begiratu bat eman nion, berealaxe erosi, baita beste nere liburuekin batean gordeta utzi. Azkeneko ogei urteetan nere liburuak itzalian orrela egon dire. Ameriketatik jtzulita, liburutegia argian eratu dut, baita aipatutako liburua eskuetan artu. Orrela eskuetara erori zitzaidan eskutitza. Berealaxe ikusi nuen daukan garrantzia.

Aurten, 1997'garrena, D'Abbadie jaunaren eriotzaren eun urteburua ospatzen dugula, gure eskutitza au, ondo aztertuta argitaratzeko asmoa etorri zitzaidan. Eskutitzaren ikerketa bearrezkoa zeritzaidan. Gaur etorri zaio bere egun ori.

Liburuaren azalean eskeintza soila frantzesez egiña dauka: "Nicolas de Soralue y Zubizarreta'ri, edestiko Akademiaren laguntzallea bezala agurtzen du, baita Argentinatko ordezkaria deitzen". Adiskidetasunaren ezaugarririk ez dio agertzen. Eskutitza, Antoine D'Abbadie jaunak izenpetzen du ta "Institut" delako kide ta laguntzalle bezala azaltzen da.

ESKUTITZAREN BARRENA

Liburuaren 39'garren orrialdean, eskuz idatzitako idazkia, españolez egiña arkitzen da. 23 liburuen izenen zerrenda dakar. Ondotik amar lerroen idazkia dator. Orrialde au Nikolas de Soraluzere bezala agertzen da.

Lau liburuen izenak azpimarratuak daudenak erosteko agintzen dizkio; zallak direla arkitzen, dio baita ere. Irakurtzeko, bizpairu illabeterako, berriz itzultzekotan, utzi nai dizkio. Oraindik salgai daudenak, berak esaten dionean, aginduaren zai gelditzen da. Berak idatzitako Gipuzkoa'ko edesti orokorra ta idazkien zerrendarekin liburua bidaltzea agintzen dizkio; ori beste egun baterako uzten du.

Bi itz oartxo bat bezala: erdarazko idazki onetan, aditza geroko garaian jartzen du. Geroagoko agintzen dizkio bi liburu. Oartxo oneri bere garaian garrantzi aundia emango diogu.

Bigarren papera utsa datar.

Orren atzetik, A.Th.D'Abbadie jaunaren eskutitza frantzesez, eskuz egiña, marfil kutzusko paper ori batean arkitzen dugu. Eskutitzaren egite-eguna jartzen du garbiasko: 1871/9/29.

Nundik idazten dun agertzen du: Abbadia jauregitik egiña, Hendaia ondoan. Eskutitza orrek amasei lerroko idazkia dauka, egilleak izenpetzen du ta

(1) ETUDES GRAMMATICALES SUR LA LANGUE EUSKARIENNE PAR
A.Th.D'Abbadie et J.Augustin Chaho, de Navarre, Paris | 836.

orren ondotik liburuen izeneen zerrenda jarri du, denak ondo zenbatuak, batetik asita, ogei arte.

Orrialde orren atzean, amaika lerro estu daude, izki txikiekin idatziak; liburuen zerrendatxoa dakar.

Eskutitzaren bigarren orrialdea, eskuz idatzia, liburuen berrogeigarren orrialdeari erantsia dago. Zati onetan, liburuen izenen zerrendarekin jarraitzen du; 21'garrenatik 60'garrena arte. Orren ondotik iru lerro datoz idatziak. Azkenean, egilleak labor izenpetzen du.

Bigarren orrialde onen gibelean, amar lerro daude idatziak, eta egilleak labor izenpetuak.

Eskutitz onek esaten digunagatik, beste eskutitza baten ondorioa dela, deritzaigu. Len arremanetan direla, dirudi. Soraluze'ri itzultzen dion papera, onek lenago egindako orrialdea, noizbait bidalia izana dela, iduritzen zaigu.

ESKUTITZAREN MAMIA

1836'garren urteko liburua, opari bezala bidaltzen diola esaten du. Berak liburu ortan dionez, euskal liburuen lenengo izendegia dakar.

Ba dula, eskuz egindako beste idazkia izendegiarekin aitortzen dio: au bai ezin dezaiokeela utzi, ezta ere ordaintzekotan.

Soraluze'ren paper orretan, lau liburu bereziki azpimarratuak daude; arkatzez marraztuak. Ezaugarri oiek dituzten liburuak, gogotik erosiko lituzkela, dio D'Abbadie'k. Ezaugarri orregatik itzultzen dio berriz Soraluze'k egindako orria; erosteko asmoa agertzen bait du.

Soraluze'ren liburuen izendegiak ta D'Abbadie'k egiñak elburu ezberdinak dituztela, aitortzen du, beste geiagorik esan gabe. Dena dela, D'Abbadie'k dabilkin gaia Soraluze'ri eskeintzen dio. Aurrez eskeintzen dizkion liburuak on-tzaz artuko ditulakoan dago. Ale batzuek saltzen aleginduko dela aitortzen du. Len emandako idazkia, au da Lege-zarren liburua, 1866'garren urtean egiña ta ondo jaso, baita oraingokoak eskertzen dizkio.

Erantzuna, beranduegi bidaltzen diola aitortzen du; Hendaia'ko Udalako lanarekin artuegia izan delako.

Onen ondotik dator liburuan izendegiaren zerrenda. Gaia agertzen du España'n euskaraz argitaratutako liburuak, baita ere Euskalerra'ri buruz egiñak.

Bigarren orrialdea esaldi batzuekin bukatzen da. Etxean daukan liburuen zerrenda luzeagoa dela dio. Etorkizunari buruz liburu berriak lortzeko aukera eskeintzen du.

Azkeneko orrialdean gibelean eskutitza au bidaltzeko euki duten eragozpenak esaten dizkio. Orrialde oiek bultzian ez dizkiote artu nai izan. Urrengo egunean, Baiona'tik Paris'ero dijoala, bidaltzekotan dabil. Illean bukaera arte Paris'en gelditzekotan dagola aitortzen du.

Orain, eskutitzaren egillearen aurkezpena egin bear dugu. Egilleak eskutitz oneri, garrantzi aundia ematen dio. Gizon berexi baten idazkia da. Euskalerra-ren kulturarekin zerikusia dauka gañera.

Jakin dezagun ba, nor dan egillea.

NOR DA ANTOINE D'ABBADIE?

Oso nortasun aundiko gizona dugU, gero ta geiago ontzaz artua izango dena.

Antoine D'Abbadie, Irlanda'ko iriburuan, Dublin'en, 1810'garren urtean 11 beltzaren iruan jaio zen.

Sendi berexia zeukan. Aita, Michel d'abbadie Arrats'tarra zen, etxe oneko semea, berez jauntxo. Frantzi'ko iraultza aundiko gudan, Irlanda'ra iges joan ziren. An bertako alaba aberats batekin ezkontzen da, Thomson andereñoarekin. Sei seme-alaba euki zituzten (iru mutil eta iru neska).

1813'garren urtean, Frantzi'ra itzultzen dire. Toulouse'era dijoaz bizitzera.

1859'garren urtean, Antoine D'Abbadie, Virginie Vincent neska aberats ta ondo-eziarekin ezkontzen da.

Paris'en 1897'garren urtean il zen. Obiratzeko Hendaia'ra ekarri zuten, Abbadia jauregiko illobian dago ezarria.

Jakin dezagun gizon ospetsu onen *eziketa*. Ikasketak Toulouse delako iri nagusian egin zituen. Erdi-malleko ikasketak 1827'garren urtean amaitu ondolik, Goi-mallako Ikastetxe Nagusira joaten da, itxuraz legea ikastera; beste gai geiago ikuitu zituen, ludi jakintza adibidez. Ortzi-jakintzaz asko arduratu zen. Bere bizitza osoan jakintzazale izan genuen; batez ere, ortzi, izkuntza ta lutelesti gaietan.

1849'garren urtean, amabost m;ila itzezko iztegi arrigarria "Amarinna" izkuntzan (Etiopia) amaitzen du.

Urte ortan bertan, beste talde batekin Paris'ko "L'Academie de Sciences" eraiki zuen. Lendabizi jakintza elkarte orren laguntzalle izendatzen dute (1862), gero maikide osoa.

1882'garren urtean, Madrid'eko Edesti-Akademiaren Oorezko kide izendatzen dute.

1897'garren urtean, eriotzak arkitu zuen urtean, Paris'ko "Academie de Sciences" delako elkadearen zuzendaria izatea lortzen du, baita beste Akademiarena (L'Academie Geographique).

Jakintza berexi ori lortzeko, arrigarriak dire, garai adan egin zituen *ibillialdiak*:

1835-Brasil'era urte bat, lur-otantza edo magnetismoa ikertzeko, Arnaud bere anaiarekin joan zen. Urontzian Luis Bonaparte Prinzearen ezaguera egingo du (Napoleon III izenarekin, Frantzia'n geroago aginduko du).

1837-Etiopia ta Egipto-Goiko aldera dijoakigu. Amaika urte iraungo ditu lurralde oietan (1837-1848).

1850-Jerusalen'era eguzkiaren illuntzea ikustera.

1851-Noruega' ra eguzkiaren illuntzea ikertzera.

1860-Briviesca'ra (Kastilla) eguzkiaren ezkutatzea aztertzer.

1867-Algeria'ra ibillialdia, izad;aren azterketa egitera.

1882-Santo Domingo delako ugartera Ameriketan, eguskiaren aurretik Venus'en ibillialdia ikustera dijoa (72 urte ditu).

1884-Itxas Gorri'ra ta Etiopia'ra (74 urteekin).

1885-EICairo, Alejandria (Egipto), Atenas (Grezia) irietara jakintza gaietako ibillialdia.

Garai artarako euskalzaletasunaren doaia guztiz ederra azaltzen du.

Euskal giro berexia sendian xurpatzen du. Aitak, Michel'ek, naiz emaztea

irlandesa izan, seme-alabei euskaraz egiten die. Etxean iru izkuntzetan mintzo dire, frantzesez, ingelesez, euskaraz. Iztegitxo bat landu zuen, baita ere euskaraz erri abestien bilduma egin.

Bere anaia Jean Charles, Toulouse delako irian jaiotzen da 1821'garren urtean, Echauz delako jauregian (Baigorri) bizi da ta 1901'garren urtean il zen. Echauz'eko jauregian, Luis Luziano Bonaparte Prinzea, napartar euskalzaleekin arremanetan jartzen ditu 1856'garren urtean. Echauz euskal ikasketean kabia biurtuko dute.

Jean Charles'en emazteak irikiko dizkio Pier Loti'ri euskal jaien atreak.

Antoine d'Abbadie'k, Agustin Chaho Paris'en ezagutuko du eta biok elkartuta euskal eliztia argitaratuko dute. Sarrera Antoine D'Abbadie'k egingo dio, beste dena Agustin Chaho'n lana da. Orduan Antoine D'Abbadie'k 26 urte ditu.

1849'garren urtean ba dator Euskalerrira bizitzera. 39 urte ditu. Itxas ondoan, Hendaia ertzean, baserririk aundiena erosten du ta jauregi eder bat altxa arte an asten da bizitzen.

Ortxen bertan zuzentzen du *JAI-ALAI txapelketa* lendabizi 1851'garren urtean, Agorraren bederatzian.

1853'garren urtean, lenengo aldiz Olerki-Lorezko jaialdia Urrune'n antolatzen ditu; Lapurdi'n ain zuzen. Amabi urtez berak zuzenduko ditu (lenengo zazpiak Urrune'n -1853/1859, urrengo lauak Sara'n ,gero Urnieta'n-1886-. Ondotik beste erri geiago datoz: Askain (1887), Kanbo (1888), Doneztebe (1889), Maula (1890), Donibane Lohitzun (1892), Uztariz (1893), Donibane Lohitzun (1894), Ezpeleta (1895), Bera (1895), Maule(1896), Kanbo (1896).

Txapelketa eder oiekin atsa sakona eman zion euskarari.

Olerki-loreak, sei urte Kataluña'n asi aurretik, Antoine D'Abbadie'k Euskalerrian sortu zituen. Diru kontuak bere gain artzen zituen, baita sari ederrak ematen: urrezko ontza ta zillarrezko makila. Sarieetan, jai baktotxean 830 urrezko franko banatzen zituen.

Olerki-loreen bitartez, Antoine D'Abbadie'k Euskalerrri osoan euskararen zaletasuna sortu zuen, bai erriaren aldetik, baita ere jakintsuen aldetik ere.

Aipatu bearra sortu nai zuen asmo ederra: Baiona'ko apaiztegian euskarazko ikastaroa. Den dena berak ordainduta. Eliz agintariak ez zuten ontzaz artu asmo eder au.

Euskarari buruz ,beste gizon ospetsuei mintzo dela, argitaratutako idazki batzuek aipatu bear ditugu:

a)Antoine D'Abbadie'k Jose Manterolari Eskutitza 1855.

b)Dictionnaire Basque, Español et latin, par Agustin Chaho et Antoine D'Abbadie 1856.

c)Travaux recents sur la langue basque, Paris 1859.

Gañera azkenean *bizitzeko aukeratutako erria* asko maite zuen. Erriko lanetaz asko arduratzen da. Gogo on guztiengatik erriko alkatia izendatzen dute (1870- 1875). Bide berriak egin zituen Hendaia'n, baita bizpairu iturri enparantzeetan. Aurren ikastetxeak begi onakin ikusten zituen. Iriko buruaus-teak zuzentzera maiz Pau iri nagusira doa, bere gauzak bazterrean utzita.

Jauregi zoragarria, guztiz ederra, altxorren artean izarra Arangoi'ko lurretan, muno baten ganian eraiki zuen, urte askotako lana: jakintsu baten kabia, edergalluetan eredu, altxorra askoren egoitza, otoitzaren larraña, atsedeen toki egokia, erromeslarien estalpea. Andik itxaso zabala agerj, baita Larun mendia- ren gallurra ta Aiakoarrien iru buruak. Etxe berri orren marrazkiak ta neurrizko

paperak, Frantzia'ko etxegille onenak egin zizkion, Viollet Le Dus ain zuzen, barrengo apainketa berriz Duthoit edertilariak.

Jauregi onekin, Hendaia aldeko lurrak erruz aberastutzen ditu; ikuspegiari ikuitu amesgarria ematen dio. Gizaldietarako or izateko egiña. Lanak illabete luze batzuek iraun zituzten. Lenengo arria 1864'garren urtean jarri zen eta 1870'garren urtean amaitu.

Arrizko jauregi sendo onek ba du euskal kulturarentzat berexitasun aundi bat. Liburutegiaren gelan aritzazko zutabe lodi ta mardulatan esaldi batzuek euskaraz idatzita daude. Ara sail ederra neronek jaso:

- JAINCOAC, BETA LANGUILLE ON IZANAGATI, NAHI DU LANKIDE.
- ZAPAR EDOCEINEC DU BERE IZALA.
- ERO BAT ASKI DA HARRI CANTO' BATEN PUZURA EGOSTECO, BANA SEI SUHUR BEHAR DIRA HAREN KANTU ITOITECO.
- AGO JAINCOAREKI, JAINCO DUKEK HIREQUI.

Jauregiaren sarreran berriz jartzen du:

- IKUSI DUT IKASI DUT.

Abe nagusietako euskarazko esaldiei, garai artarako, garrantzi aundia eman nai diegu, berez daukatelako.

Esaldi oiek, Antoine D'Abbadie'k euskara maite dula esan nai digute. Ludi onetan gauzik maitienetako bat jauregi egin berria zeukan eta antxen ipintzen ditu, agirian, izki aundiek euskarazko esaldiak.

Egur lodi aietan euskara ikusi nai du. Aritz eta edergallu aien mallakoak arkitzen ditu. Agiri agirian ikusi naiko luke euskara indarrez beterik. Euskara, agiri, gallurrean bearrezkoa; jauregi orretan euskara begi aurrean datza. Edergallu bat bezala dauka ta etxeko izkuntza. Euskalzale aundi batek bakarrik egin dezake ori.

Inguru orretan eta jauregi ikusgarri orretik, Antoine D'Abbadie *izen aundiko euskalzaleekin* arrenanetan zegoen. Izeneen zerrenda luzea auxe da: Duvoisin, Haristoy, Adema, Intxauspe, Maurice Harriet, Luis Luzjano Bonaparte prinzea, Pierre Loti, Darrigol, ta baita ere, gure zorionezko eskutitzak dionez Nicolas de Soraluze. Gure eskutitzari esker erasten diogu azken izen ori.

Antoine D'Abbadie'n nortasuna ezagutzeko beste zerbait jakin bearra dugu: oso *sinismen aundiko gizona* zela. Mixiolariantzat jauregi eder ori beti irikia zegoen, baita SANTIAGO'ra zijozten erromeslari guztientzat. Eskalei ere laguntza gogotik ematen zien. Elizkizunetarako apaiz baten bearra izaten zuen beti.

Erroma'ra joanta, 1838'garren urtean, Etiopia'ra Lazarista'tar mixjolariak bidaltzea eskatu zion Aita Santuari. Baita Aita Santuak asmo eder ori bete.

Baita ere esan bearra, gizon ospetsu onen izena borobiltzen duen berri: nagusi aberatsa zen, Urrune'n bakarrik ogeitabi baserri zituen. Il ondotik, baserriar bakoitxari etxearen nagusitza eman zion. Mailla ortaraño maite zuen bere erria.

Azken berria jaso duguna, Jean Haritohehelar jaUnak emana, aUxe da: 1864'garren urtean, Antoine D'Abbadie dugu Paris'ko linguistika elkartearen lenengo zuzendaria.

NOR DA NICOLAS DE SORALUCE? (1820-1884)

Antoine D'Abbadie jaunak egindako eskutitza onen artzeduna aurkeztu bearra dugu. Nicolas de Soraluze y Zubizarreta, 1820'garren urtean Zumarraga'n (Gipuzkoa) jaio zen. Bere gaztaroa Buenos Aires'en (Argentina) igaro zuen, 1855'garren urtean, Donosti'ra dator betiko bizitzera; ogeitamabost urteekin.

Izen aundiko lanak dabilzki: Argentina'ko Konsula izendatzen dute, baita ere Uruguay'koa.

Gipuzkoa'ko edergalluen arduradunen zuzendaria izendatu zuten.

Donosti'ko alkatearen ordezkaria izana dugu. Karlsteen guda garaian bi alderdietako atxilotuak, eskuz aldatzen lagundu zien.

Liburu ta liburuxka asko idatzi zituen. Bertako egunkarietan etengabe argitaratzen zizkieten idazlanak, batez ere "Diario de San Sebastián" zelakoan.

1884'garren urtean, Donostia'n il zen, San Jeronimo kalean.

Idatzitako liburuen zerrenda, auxe dugu:

- 1863— "Biografía de Legazpi" (Manila'tik Legazpi'ren lauki ederra ekarri zuen).
- 1864— "Plan de Guipúzcoa".
"Hojas impresas, cuadros acerca del gran calígrafo Besnes"
"Hojas impresas acerca de la inauguración del órgano de Zumárraga".
"Hojas impresas de propaganda al héroe cántabro; Antonio de Oquendo".
- 1866— "Recopilación de los Fueros de Guipúzcoa".
"Biografía del Conde de Peñaforida".
- 1870— "Historja General de Guipúzcoa".
- 1871— "Más Biografías y Catálogo de Obras vasco-navarras".
- 1875— "Ateneo de San Sebastián".
- 1877— "Memorias acerca de las sesiones de la casa Aizpuru de Zubieta".
- 1878— "Pescas y pesquerías de Ballenas"
- 1879— "Los Iberos osea los Eúskaros y el Euskara".
- 1880— "REAL SOCIEDAD ECONOMICA VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS".
"Los Retratos del Café Suizo y de la Marina".
- "Introducción a la historia de Juan Sebastián del Cano", por Eustaquio Fernández de Navarrete.
- 1882— "Biografía de Eugenio de Ochoa: Gloria y Gratitude al autor del Primus me circumdedisti, Juan Sebastián del Cano".
"Defensa del Apellido Familiar de Juan Sebastián del Cano".
- "Las Excelentísimas Juntas y Diputaciones de Guipúzcoa y Juan Sebastián del Cano".
"Hombres Célebres de Guipúzcoa".

Ikusten danez asko idatzi zuen, den dena edestiari buruz eta dena erdaraz. Erabillitako gaiak, Donostia ta Gipuzkoa'rekin ikusi bear dute. Azaltzen ditun nortasunak Sebastian del Cano ta Antonio de Oquendo dire. Ikusten danez edestiaren aldetik dijoa. Lege Zarra maite du, euskara bezala, baiñan erdara erabiltzen du. Askorentzat ori zen garai artako jokabidea.

Soraluze'K landutatuko edestiak, garai artako iritzia jasotzen du, uste zituzten gipuzkoar gizon ospetsuenak, gogotik landuz. Liburuetan aipatzen ditun nortasunak, oiek berak jarri zituzten Gipuzkoa'ko jauregi berriaren etxe aurrean (1885-1890); den denak Gipuzkoa'tik oso urruti gauza aipagarriak egin zituztenak. Orrek, gizarteko giroa zala, esan nai du.

ZALETASUNA ANTZA AUNDIKOA

Gizon oien artean, bien zaletasunak antza aundia daukate, banan ez dire berdinak. Biek liburuen berriak jaso ta ematea maite dute ta oso atsegin zaie. Ori garbi ikusten dugu eskutitz onen orrietan. Esan dugun bezala, Soraluze'ren orrialdean 23 liburuen izenburuak daude, D'Abbadie'ren orrialdeetan berriz 60 liburuen zerrenda luzea.

Bañan biek naiz euskal liburuak maite ta bildu eta gero zerrenda osoak osatu, ez dabilkite gaia berdiña. Eskutitz onetan bertan ikusten dugu ori. Soraluze'k, izendegian 23 liburu aipatzen ditu; oietik 12 edesti gaiak erderaz eta beste amaika euskaraz egiñak.

Edestiari buruz aipatuak orrela edatuak daude: bat Españi'ko edestiari buruz, iru Gipuzkoa'ri buruz, iru Donostia'ri, bat Ondarribia'ri buruz, bat Irun'eri, iru bizidun-edestikoak.

Euskarazko gaia daukatenak; zazpi elizako gaiak, lau iztegiak.

Ezaugarri bezala esan bearra: edesti gaietan amabi liburutik bederatzi agortuak dire. Euskarazko liburuen izenburuak denak erderaz daude. Euskarazko liburuetan, amaikatik iru, era bat agortuak daude.

D'Abbadie'ren izendegian irurogei liburuen zerrenda dago: 35 euskaraz idatziak eta dabilkite elizako gaiak, bederatzi euskarari buruz erdaraz idatziak daude, bost Lege-Zarrari buruz, lau edestiari buruz, bat eliz-edestiagaz.

Eskutitz onetan ematen zaizkigun berrietan auxe ikusten dugu argi ta garbi; D'Abbadie'ren kemena euskarazko liburuetaz arduratzen da gejena, Soraluze berriz edestiaren gaia dabilki danez gain.

Eskutitz onetan ikusitakoa gogoan daukagula, beste zerbait geiago jakin bear dugu; jakintsu auen beste lanetan berdin gertatzen ote zaien.

Ar dezagun D'Abbadie'ren lanetan ezagunena, "Etudes Gramaticales" delakoa eta or daukan sarreran asmoak garbi agertzen dizkigu. Gure izkuntzaren barrena argi azaltzen digu, baita ondotik liburuen zerrenda ematen.

Euskarari buruz berexitasun abek ematen dizkigu: izkuntzaren erro soilak, atseskiak, irukor jokabidea, aditzaren nortasuna. Euskararen aldeko ardurara, 1833'garren urtetik ezkerre sortu zaiola, aitortzen du. Euskararen alde itzak ondo neurtuak dauzka: "izkuntza aberatsa" (11 or.), "aditzaren egokitasuna" (13 or.), "Hebreo, sanskrito, Hungaro ta Georgiano izkuntzekin aidetasuna".

Liburuen izendegiaren zerrendari buruz ara emen xeetasun batzuek. 63

argitaratutako liburuetaz mintzo da, baita ere lau esku-idazkietaz. Asieran 12 liburuen izenak ematen ditu, 1607'garren urtetik 1827'garrena arte dijoaztenak. Orren ondotik gizaldietan sartu araziak agertzen ditu:

XVI 'garren gizaldian	- 3 liburu (bi izkuntzeri buruz, bat erlijioari euskaraz)
XVII	- 11 liburu (10 erlijioari buruz, bat euskarari).
XVIII	- 14 liburu (erlijioari buruz).
XIX	- 22 liburu (19 erlijioari buruz, iru euskal izkuntzan).

Lau esku-idazkiak direla, iru euskal izkuntzari buruz dire, bat erlijioari atseskia. Ezin dugu aztu erabilitako gaian, idazki den denak euskaraz egiñak daudela.

Beste xeetasuna agirian dagoena auxe da: asieran, amasei garren gizaldian oso liburu gutti idatziak arkitzen ditugu, iru besterik ez. Gizaldi berriak datoztela, pixkanaka ugaritzen dijoaz. Ortzen dauzkagu gure kulturaren aztarnak: gutxi bañan sendoak.

Euskal l;buruei buruz, Soraluze'ren lanik ezaugarriena, "Más Biografías y Catálogo de Obras Vasco-Navarras" delakoa dugu; Gazteiz'en 1871'garren urtean argitaratua. Berak aipatutako liburuak, euskal lurralde ezberdinetan banatuak arkitzen dire. Zortzi bizi-edesti ta lurraldeetan eratuak daude:

Gipuzkoa'ri buruz-Legezko edestia 28 liburuxka (23 edesti, 5 arau)

	- Euskaraz 33 izenburu.
	- Argitaratu gabeak —bi izen.
	- Liburu denak -73 izen.
	- Esku idazkiak -iru.
Bizkaia'n	- Edestia legetaz -Zazpi.
	- Argitaratu gabeak -Bost.
	- Euskarari buruz -22.
	- Gai askoren zerrenda -20.
	- Esku idazkiak -2.
Araba'ri	- Edesti legetaz -bost.
	- Esku idazkiak -bost.
	- Arauak -iru.
	- Gal askoren zerrenda -25.
Naparroa'ri	-Edesti gaiak -Amabost.
	- Esku idazkiak -Bederatz;.
	- Elizako edestia -zortzi.
	- Legea-Amar
	- Gai askoren zerrenda -27 (tarte onetan lau liburu euskaraz sartzen ditu)
Iparraldea'ri	-Euskaraz 48 (Izenburuak erderaz).
Euskalerrri	osoari-liburu denak 36.
Atseskia (6'garren zatian)	-15 liburu.

Liburuen zerrendari buruz, gure jakintsu auen aipatutako lanetan, elburu ezberdiñak arkitzen ditugu. D'Abbadie'k euskal liburuari ardura geiago agertzen die, Soraluze'k berriz edestiaren liburuak geiago ditu gogoan.

Liburuak azaltzeko bidea ere ezberdiña da: D'ABBADIE'K gizadiei begiratu-tuz banatzen ditu, Soraluze'k berriz lurraldeetan sartzen ditu. Biek liburuen maitasuna bai, baño begi ezberdiñekin begiratzen diete.

Soraluce'k berriz, euskal edestia du bere elburu nagusiena, batez ere Gipuzkoa ta Donostia'ko edestiak. Bere lan onetan garrantzi aundia ematen dio edestiaren iturriari. Liburu askoren berriak ematen dizkigu, baita ere idazleek. Eredu bezala ar dezakegu bere liburua, "Historia General de Guipúzcoa 1870" delakoa. Gañera ba dauka beste lan bat egiña euskal liburuei buruz: "Más Biografías y Catálogo de obras vasco-navarras 1871" delakoa, era bat liburuen izendegia bihurtua. Kulturarentzat liburuen berriak ematea ta biltzea, bearrezko laguntza dela deritzaito.

Soraluce'ren liburuen zaletasunari buruz, ara zer dion Vinson'ek bere euskal bibliografia delako liburu guztiz argian; lendariz 412'garren zenbakian. Ikus, -Historia General de Guipúzcoa 1870-: "Bizitza ta liburu askoren berriak ematen ditu". Gero 412 b zenbakian jarraitzen du: "beste liburuen zerrendak Iruña'n "Euskara" aldizkariari argitaratu ditu, 1879'garren urtean. Azkeneko zerrenda au gure eskutitzaren ondotik, geroago eginga dago.

VINSON'EK EGINDAKO LANAREN OÑARRIA

Euskal kulturari buruz, emertzi garren gizaldian, liburuen aldetik egindako lanetik ederrenetakoa Vinson'en "Bibliographie de la langue basque" dugu, egitazko altxorra. Gure eskutitz onen ogei urte ondotik azaldu zena, Paris'en 1891'garren urtean. Liburu orretan D'Abbadie ta Soraluze'ren izendegien berriak ematen dizkigu. Soraluze'ren liburuen zerrendak, 412'garren zenbakian aipatzen ditu.

Liburuaren sarreran ere, 23'garren orrialdean, D'Abbadie'ren izendegia, lenengoa bezala aipatzen du, baita ikusten, ortxen ere ditugula emanak, gai orretan, aurreneko urratsak. Asko da. D'Abbadie'k asiera ematen du, Vinson'ek aberastasuna: D'Abbadieren liburuan 29 orrialde 64 liburuen izenburuekin, Vinson'ek berriz, gai oneri buruz bi liburu mardulak argitaratzen ditu, danetara 818 orrialde, 1310 liburuen izenburuekin. Vinson'en liburuetan, egitazko erraldoiaren lana agertzen zaigu.

ESKUTITZAREN GARRANTZIA

Gure eskutitz au ez da nolanaikoa. Berri aundiak ematen dizkigu, batez ere euskal liburuen bildumei buruz. Garai artako giroa agertzen du bereziki euskalzaleen artean.

Danez gain gai berexi berexi bat agirian eta argi gelditzen da. Kultura indartsu guztiek, zer eta zenbat egin den jakiteko, norberaren nortasunari bUruz idatzitako lan guztiek biltzen dituzte. Europa osoan orrela sortu dira idazkien bilduma galantak. Ikus Frantzia'n "Brunet" delakoa, "Palau" delakoa España'n eta abar. Euskalerrria ezin gelditu atzetik.

Gure bi gizon auek euskal liburuen gosea azpimarratzen dabiltz. Ematen dituzten urratsak, euskal kulturaren oñarriak dire, ezagutu bearrak gutaz zerbait sakonki jakiteko. Liburu zerrenda oietan gure kulturaren garrantzia agertzen da: lana egiña ba dugula, argitasun ederra ematen digute. Gure idazle auek ba dutela begia ta gogona aitortu bear. Bide onatik dijoaz, zuzen zuzenean.

Gañera, gure eskutitz onek beste elburu bat betetzen du. Soraluze berak ondo esaten du ori, "Más biografías y catálogo de las obras vasco-navarras" delako liburuan, Antonio D'Abbadie'k egin zion mesedea, oar batean aitortzen du; ori dena liburuen berriak ematen d'itula. 1871'garren urtean Abenduan argitaratzen du liburua ta zortzi izen berriak ematen dizkigu. Liburu oien izenak gure eskutitzan daudenak dire. Garbi garbi berak esaten du ori dena (2):

"Antonio D'Abbadie'ren liburutik artu ditut izen batzuek, onexek berak beste zazpi eman dizkit (Marineo Siculo, Elso, Ochoa, Arzadun, Olachea, Gerrico, Gorostegi-denak euskaraz)"

Izen guzti oiek, den denak gure eskutitzan arkitzen direnak dire.

Gure eskutitz onen bitartez, liburu oiek ezagutzen ditu Soraluze'k. Eskutitz onen bitartez ematen dizkio berriak D'Abbadie jaunak SORALUZE'ri. Orregatik gure eskutitz au, euskal kulturaren malla bat da. Orrekin ikusten da nola eskutitz onek lagundu dion bere lan ori egiten. Eskutitza, 1871'garren urtekoa Irailaren 29'an egina da. Egun ori D'Abbadie'ren eskutik egiña agertzen zaigu. Soraluze'ren liburua berriz 1871'garren urteko Abenduan sortua dago.

Eskutitz onek gañera beste zerbait adierazten digu: D'Abbadie ta Soraluze'n artean dauzkaten arremanak. Len agertu dugu euskalzaleen zerrenda luzea, D'Abbadie'ren inguruan. Orain Soraluze'rena erantsi dezaiokegu. Eskutitz onek aitortzen dun berria da. Orrexek D'Abbadie'ren euskalzaleen adiskideen taldea luzatzen du, baita ere aberasten.

Eskutitz orretan bi jakintsuak lanean ikusten ditugu; beren mallan, berriak ematen eta jasotzen. Biyek dire langille amorratuak, ez dakitenak astirik galtzen. Biyek dire aurrelariak. Bear aundi bateri erantzuten dabiltz; euskal gaiak biltzen eta ezagutu arazten. Jakiña, ez da lana errexa. Liburu zarrak arkitzen lan zalla. Liburu zarrak agortuak bai daude. Liburuei buruz berri txikiena, garrantzi aundiko gauza bezala artu bear. Gure bi gizonen esku oietan ez da ezer galtzen.

Itz batean dena esana: euskal liburuen zerrendak altxorraz beteak daude, bear diran eskuetara eroriak. Beti orrela izan ba'litz!.

LANGLLE BAKANA (TRABAJADOR EXCEPCIONAL)

D'Abbadie jauna oso gizon berexia dugu, baita ere bakana. Ez dugu bere garaiko gizona, nere ustez oso bestelakoa. D'Abbadie aberatsa da, ta garai berdiñean euskara zalea. Ez da ori maiz ikusten Euskalerrri zabalean.

Euskal gizartea nolakoa den, orduan, jakiteak, euskararen egokera nolakoa den ulertzera laguntzen gaitu.

(2) Más biografías y catálogo de obras vasco-navarras, Vitoria 1871, 43 orrialde".

Orduko giroa nolakoa den obeto ulertzeko, berri batzuek aipatzera goaz:

1°— Agintaritzza esku batzuetan, talde txikien menpean zegoen len.

2°— gure erri ta iri geientsuetako baserriek masterren eskuetan zeuden. Eredu ederra ematen digu Imanol Elias Odriozola idazleak, berriro idatzi duen liburuan (3). Gure idazleak dionez, ba daude 466 baserri Azpeitia'n 1834'garren urtearen inguruan. Oietatik 24 bakarrik daude nagusien eskuetan, au da eun baserriatik bost bakarrik, gutxi gora bera. 466 baserriak 126 nagusienak dire; Granada'ko Dukeak berak bakarrik ba zituen 48 baserri.

Masterrak ugari, nagusiak gutxi eta auen pean indar aundiak. Egitazko indarra nagusien eskuetan zegoen.

3°— Euskalerriko Lege-Zarrak (Fueroak) bertako semeak Aitor'en semeak direla aitortzen du. Orrekin uste genuen euskadunak danok Aitor'en semeak giñala. Egia bestelakoa: egitazko indarra oso esku gutxitan izaki.

4°— lege-Zarrak esaten du (4) zer egin bear duen edozein gizasemeak bere eskubideak agertzeko. Agiri bat bear du letraduak egiña, odolaren garbitasuna aitortuz.

Zillarrarekin agiria ordaindu bear zuten. Oso master gutxi, baldintza ori betetzeko gai ziren (5).

5°— Gipuzkoa'ko batzar nagusiak izendatzeko auteskundearen eskubidea oso esku gutxitan zegoen. 1821'garren urtean, Donostia'n 49 gizasemeak bakarrik zeukaten auteskundeetan agertzeko eskubidea (6). Bi baldintza eskatzen zituen Lege-Zarrak: a) odol garbiaren agiria, b) "millares" delako aberastasunak izatea.

"Millares" eukitzea, bizpairu etheen jabe, edo lurralde aundiak, edo sagasti, edo masti ederrak jzateari, deitzen zitzaion. Maxterrentzat eziñezkoa. Orrexek salatzen du zergatik zeuden auteskudeetarako ain gizaseme gutxi. 1821'garren urtean Donostia'n 49'k eskubidea agertu ba zuten, gutxiago izango ziren oraindik Bergara, Oñati, Zarautze'n eta abar.

Gure Lege-Zarrak orrelako eskubideak jauntxo batzuei ematen zizkiela, agintaritzza aberatsen eskuetan gelditzen zen, ta ez nolanaiko aberatsak. Jauntxo abek erria zaintzeko egitazko aukera zeukaten.

Nola bizi ziren egitazko aberatsak jakiteko eredu batzuek ikus ditzagun Gipuzkoa'n bertan. Gizaldi onen asieran "Albuquerque'ko Dukea" lau illabeterako Sanz-Enea jauregira, Zarautze'ra zetorrela udaran, denak zenbatuta 65 langille zekarzkin, bai neskame, sukaldari, atezai, morroi ta abar. Aia'ko Maia baserriatik egunero 65 litro esne ematen zizkien (7). Zer esanik ez, zenbat ollo, arrautz, aragi eta barazki bearko zituzten.

Orra beste eredu, Antonio Zabala'ren liburuetatik artua (8): Conde de Villapadierna, Vista-Alegre'ko jauregian Zarautz'en bizi zen, Santa Barbara'ko

(3) Imanol Elias Odriozola, Guía histórica y taurina de Azpeitia, Azpeitia'ko Udala 1986, 23 orrialde (Dr Julian Bereziartua'ren doaia).

(4) Nueva Recopilación de los Fueros de Guipúzcoa, Tolosa 1696 –Título IX, Fuegos y pagos a la Provincia.

(5) Pablo de Gorosabel, Noticias de las cosas memorables de Guipúzcoa, La Gran Enciclopedia Vasca 1972, Bilbao, pp.247 248 253 258 438-477.

(6) José Múgica, Carlistas y Progresistas, Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, San Sebastián 1950, 224-225 or.

(7) Dr Julian Bereziartua'k emandako doaia.

(8) Antonio Zavala, Arrantzaleen bizitza. Auspoa, 133 zenbakia. Tolosa 1978, 45-46 orrialde.

elizatxoaren magalean. Amar neskame ta morroi zituzten ta gañera bi atezai, bi sukaldari, garajeen txoferra ta lakaioa, amar milla landare loretokian.

Orrelako bertako aberats batzuen eskuetan zegoen politika. Beste guziek, geienak, masterrak, estu bizi bear. Aberatsak, ez aztu, beren aldetik zituzten indarra, dirua erruz, jakintza ta legearen ingurua, letraduen gizartea, legegizon, agiri-idazle (notario). Aberatsen inguruan bizi zen arau edo legegizarte ori; diruarekin lotua zegoen eta letraduen erabakietan murgiltzen zen gure arriaren etorkizuna. Agintariak edo gura jauntxoek legearen bearra izaki, bañan arana- ren inguru ori beren eskuetan zegoen. Ez zuten dirua bakarrik, balta ere indar galanta ta ontasunak Euskalbarri barranean, Españian eta erregearen ondoan, eta oietatik askok eta askok Ameriketara ere bai.

6°— Legearen inguru ori jauntxoek eskuetan zegoen eta, ez aztu, agintarien edo imperioaren izkuntzan ondo bildua. Legearen edo Arau nagusiaren izkuntza latina edo erdara zen. Idazki ofizialak geienak erdaraz idatziak izaten ziren, bein ere euskaraz. Ez dago arau bat edo notaritzako idatzi bat euskaraz, den denak gizaldi luzeetan erdaraz daude egiñak. Legearentzat ez zuen ba balio euskarak, ori euskal jauntxoek agintzen zutela. Jauntxoek erdarazko legepean bizitzen oitu ziren. Erri osoa, erdal legepean bizitzen oitu zuten. Euskara mas- terren izkuntza zen, erri soilarena. Orregatik indartsuaren inguruan euskara gaizki ikusia zegoen, menditarrena zalantzari gabe.

Gura jauntxoek eta indarzaletak beko mallako izkuntza bezala ikusten zuten euskara. Bearrezko gauza askotarako, legearekin adibidez, erdarak balio zuen, euskarak ez. Orrexek kalte ikaragarria egin dio gure euskarari.

Joan den gizaldietan ezer gutxi lagundu diote legegizonak euskarari. Indar- raren agiria legea ta araua beti erdaraz, Aintzinako gizaldietan legegizon bakarra ezagutu dugu euskalzaletasuna, "Oihennart" Xibero'ko semea (1592- 1667).

Gure jauntxoek legearen bidetik erdara bakarra erabiltze orrek eta euskara baztertzea izan da gure izkuntzaren galera galanta, baita ere galtze orren arda- tza nagusia. Orrexegatik galdu da euskara lurralde zabaletan: aurrerapen izkuntza, etorkizunari buruz erdara dela ikusi dutelako. Ori izan dela Euskalbarri- ko jauntxoek lana, garbi dago. (9).

7°— Antoine D'Abbadie jaunak berriz, naiz oso aberatsa izanez du euskara arbiatzen, alde bestela jokatzen da. Barren barreratik maite du euskara. Maitasun ori zuzen gartsu ta garbi azaldu du. Berak sortu ditu ezereztik euskal kulturaren urrats sendoenak, erria esnatu arazteko, olerki lore jaiak. Olerki txapeldunei urrezko ontza ematen zien eta zillarrezko makila. Berak erakutsi zigan euskara indartzeko bidea.

8°— Gure eskutitz onek baste gauza bat erakusten digu. Lenengo urratsa eman bearra. Euskal kulturaren mallan, nun gauden jakiteko, euskal liburuak bildu eta ezagutu arazi izango da elburu nagusia. Euskal bibliografiaren lenen- go urratsak d'Abbadie jaunak ematen ditu eta eskutitz onetan, eskuz eginda- ko idazki onek ortaz mintzo da, baita aitortzen ere. Gure eskutitzak ori dena esaten du. Orregatik da euskal kulturaren malla bat, bere garaikoa, ta neurri berdiñean egitazko altxorra, euskal jakintzaren iturri berdina gabea.

9°— Benetan, orregatik Antoine D'Abbadie, kulturaren mallan jakintsu aurrelari bat izan zela aitortu dezakegu; au da euskaldun guztiz berexia.

(9) Lege-zarrari buruzko berriak, Jose Ignacio Mugica Brunet lege-gizon ospetsu ta adiskide miñak eskuratu dizkit. Nere esker onenak irabazi ditu.

Gañera, gure eskutitz onek, euskal kulturaren aldetik beste alderdi bat azaltzen digu: Ipar eta Ego Euskalerra artean sortzen diren lokarriak eta arremanak. Lana egiteko elkartzen dire; berriak eman, laguntza eskeñi, indarrak batu. Giro orren eredu ta bultzagille D'Abbadie ta Soraluze dauzkagu. Ba daki-te euskaldunak elkartu bear dutela. Parregarri gelditzen gera, gutxi ta bakoitxa bere aldetik. Bide oretik irabazirik iñorentzat. Batasunean euskaldunen artean egiten diren lanak dauka egitazko etorkizuna. Gai onetan aurrelari ditugu D'Abbadie ta Soraluze. Ipar eta Egoaldeko lokarriekin iruten da Euskalerra'ren etorkizuna.

AMAIA

Euskal kulturaren etorkizuna ikusten dugularik, bi abe nagusi gañean erai-kia dagola aitortu bear: euskararen jakintza ta maitasuna.

Euskal jakintza ori zuzperten alegindu zen Antoine D'ABBADIE LENDABIZIKO URRATSA EMANEZ. Auxe esan nai du orrek: euskal liburuak, asieratik bildu, auen egokitasuna ikertu ta ezagutzera eman. Danez gañ elburu nagusi bat euki: euskararen maitasuna barren barrendik landu. Maitasun orrek leguntzen du lanaren garraztasuna. D'Abbadie'rentzat euskara indartzea muga gabeko zoriontasuna da, bizi berri baten atsa berexi berexia. Orregatik Antoine D'Abbadie geldituko da beti eredu aundi bat bezala, gure ortziko izar argitsua: Aurrelaria, euskalzale benetakoa, bide urratzallea, aspergabeko langillea, sinismen andiko kristaua, "gizon" egitazkoa. Gure esker beroenak ematen dizkiogu.

ATSESKIA: ANTOINE D'ABBADIE'REN EUSKAL ARREMAN BEREXIAK

Bi euskal idazle berexienetakoakin euki zituen arremen aberatsak Antoine D'Abbadie'k: Augustin Chaho eta Bonaparte Prinzea. Bi idazle auek euskara maite zuten benetan. Biek asko landu zituzten gure izkuntzaren gaiak. Biek ikerlariak ziren, goimalleko jakintsuak.

Augustin Chaho 1810'garren urtean Atarratze'n jaioa, Xiberotarra, euskalduna dugu.

Louis Luciene Bonaparte prinzea ez da euskalduna, baina bai euskalzailea amorratua.

Bi nortasun auekin lotua arkitzen dugu A.D'Abbadie.

Augustin Chaho Paris'en ezagutu zuen. Elkarekin bi liburu argitaratu zituzten, esan dugun bezala: lenengoa 1836'garren urtean.

Bonaparte Prinzea Londres'en ezagutzen du 1856'garren urtean, Antoine D'Abbadie'k laguntzalleak billatzen dizkio Bonaparte Prinzeari ikerketak egiteko.

Bi nortasun aundiko jakintsu auekin A. d'Abbadie'k euskal zaletasunaren egokitasunak asko irabazten du.

Orrela, bi adiskide auen bidez euskal kulturaren iturri garbiak asko indartzen dire ta jakintzaren urak loditzen.

Antoine d'Abbadie'ren emaitza guztiz berexia agertzen zaigun bezala artu bear dugu; lore jokuak dire, bersolarien ta olerkarien txapelketak, euskal jaiak. Ortzen gelditzen zalzkigu Antoine D'Abbadie'ren emaitzarik ederrena bezala.

Ezagutzera eman dugun eskutitza au, esan bearra, Iparragirre'ren "Gernika'ko Arbola" abestiaren ondotik dator eta karlisten II'garren gudaren aurretik (1872-1875), Santakruz apaiza mendira joan aurretik.

Gure eskutitza onek, D'Abbadie'k euskal jakintzari ematen zion garrantzia aitortzen du. Jakintsu andi onentzat, euskaraz idatzitako liburuak, euskal kulturaren altxorak dire. Ortzen agertzen digu jarraitzeko bidea...

BIBLIOGRAFIA OROKORRA

- Jutien Vinson, Essai d'une bibliographie de la langue basque, Maisonneuve, Paris 1891.
- Serapio Mugida, Las calles de San Sebastián, San Sebastián 1916
- Luis Villasante, Historia de la literatura vasca, ed.Sendo, Bilbao 1961.
- Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, Auñamendi, San Sebastián 1969, Literatura, Antoine Th. D'Abbadie, vol.1, pp. 334-342 / 516-521.
- Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, Auñamendi, San Sebastián 1970, diccionario, Ant.D'Abbadie.
- Isidoro de Fagoaga, Un sabio benefactor: ANTOINE D'ABBADIE, La Prensa, Buenos Aires, 26 julio 1970.

- Juan Mari Torrealdai, Euskal Idazleak Gaur, Jakin, Oñati 1977.
- S. ONANDIA, EUSKAL LITERATURA. ETOR, BILBAO 1973, II zen, 221 or.
- ABBE M. Michelena, Haize Garbia, Hendaia 1987, "Abbadie Le Chretien".
- Abbadiako Adiskideak, Domajne D'Abbadia, Bayonne 1991.
- Le Negus du Pays Basque, Le Monde 10 novembre 1995.
- Nafarkaria, Antoine d'Abbadie eta Lore Jokoak Beran 1995, V.5

D'ABBADIE'REN LIBURUAK

- Etudes grammaticales sur la langue euskarienne par A.Th.
d'Abbadie et Augustin Chaho,
Arthus Bertrand, Paris 1836.
- Guttuna Antonio Abbadie eta Jose Antonio Uriarte, 1855
- Tres Cartas Abbadie Antoine d' 1885, a Jose Manterola.
- DICTIONNAIRE Basque, Frangais, español, par d'abbadie et Chaho, Bayonne 1856.
- Travaux recents sur la langue basque, par Antoine d'Abbadie, Imprimada Imperiale, Paris 1959.

NICOLAS DE SORALUCE'REN LIBURUAK

Soraluce Zubizarreta, Nicolás de

1	Soraluce Zubizarreta,	Ni	La Cantabria de la Edad Mod (manuscr)	1875
2	Soraluce Zubizarreta,	Ni	La Cantabria antigua hasta (manuscr)	1875
3	Soraluce Zubizarreta,	Ni	Defensa del apellido famili (manuscr)	1879
4	Soraluce Zubizarreta,	Ni	Real Compañía Guipuzcoana de Caracas	1876
5	Soraluce Zubizarreta,	Ni	Las Excmas. Juntas y Diputaciones de G	1883
6	Soraluce Zubizarreta,	Ni	Los retratos del Café de la Marina de	1867
7	Soraluce Zubizarreta,	Ni	Real Sociedad Bascongada de los Amigos	1880
8	Soraluce Zubizarreta,	Ni	¿Es del Cano o de Elcano el (manuscr)	1873
9	Soraluce Zubizarreta,	Ni	Biografía del ilustre conquistador de	1863
10	Soraluce Zubizarreta,	Ni	Biografía del ilustre Don Javier María	1866
11	Soraluce Zubizarreta,	Ni	Memoria acerca de las celebres sesione	1877
12	Soraluce Zubizarreta,	Ñi	Los retratos del Café de la Marina de	1867
13	Soraluce Zubizarreta,	Ni	Los retratos del Café de la Marina de	1867
14	Soraluce Zubizarreta,	Ni	Ultimas líneas de Soraluce ó sea Resúm	1886
15	Soraluce Zubizarreta,	Ni	Más biografías y catálogo de obras vas	1871
16	Soraluce Zubizarreta,	Ni	Introducción, capítulo F y otras descr	1878
17	Soraluce Zubizarreta,	Ni	Juicio crítico sobre la unión de Guipu	1826
18	Soraluce Zubizarreta,	Ni	Los iberos o sean eúskaros y el eusker	1879
19	Soraluce Zubizarreta,	Ni	Historia de la M.N. y M.L. Provincia d	1864
20	Soraluce Zubizarreta,	Ni	Historia general de Guipúzcoa	1870

21 Soraluze Zubizarreta,	Ni	Historia general de Guipúzcoa	1869
22 Soraluze Zubizarreta,	Ni	Gloria y gratitud al inmortal autor de	1882
23 Soraluze Zubizarreta,	Ni	Fueros de Guipúzcoa: títulos adicon	1866
24 Fernández de Navarrete,		Historia de Juan Sebastián del Cano	1872
25 Soraluze Zubizarreta,	Ni	Defensa del apellido familiar de Juan	1881
26 Soraluze Zubizarreta,	Ni	Real Sociedad Bascongada de los Amigos	1984
27 Soraluze, Nicolas		Historia general de Guipúzcoa v.1	1985
28 Soraluze, Nicolas		Historia general de Guipúzcoa v.2	1985

BÜLLLTIN

DE Un

SOCIÉTÉ DE LINGUISTIQUE

Nº 15

LISTE DES MEMBRES DE LA SOCIÉTÉ DE LINGUISTIQUE DE PARIS AU 1^{er} JANVIER 1876. MEMBRES PERPÉTUELS.

Le prince Al. BIBESCO, licencié és-lettres, 73, boulevard Saint-Michel, Paris.

BONNARDOT, archiviste paléographe, 23, avenue d'Orléans, Paris.

Hartwig DERENBOURG, 3, rue d'Amboise, Paris.

EGGER, membre de ('Institut, 68, rue Madame, Paris.

JORET, professeur á la Faculté des Lettres, 4, rue des Grands-Garmes, á Aix.

Demetrios de MENAGIOS, attaché au ministère des affaires étrangères de Russie, 65, perspective de Nevski, Saint- Pétersbourg.

Paul MEYER, professeur á l'École des charles, 59, rue Raynouard, Paris-Passy.

Gaston PARIS, professeur au Collége de France, 7, rue du Regard, Paris.

Ch. PLOIX, ingénieur-hydrographe, 23, rue de l'Université, Paris.

John RHYS, ancien fellow de Meton College (Oxford), Rhyl, North Wales (Grande-Bretagne).

Eug. ROLLAND, 9, rue du Sommerard, Paris.

STORM, professeur á l'Université, á Christiania (Norvège).

GOULLET, 14, place de La Chapelle, Paris.

Louis HAVET, répétiteur á l'École des hautes-études, route de Saquet, á Vitry (Seine).

L'abbé GONNET, 19, rue Notre-Dame-des-Champs, Paris.

Le marquis Joseph de LABORDE, rue de l'Oratoire-du-Roule, Paris.

Le comte de VOGUE, membre de ('Institut, ambassadeur de France á Vienne, rue Fabert, 2, Paris.

MEMBRES ORIDNAIRES.

Antoine d'ABBADIE, membre de ('Institut, 120, rue du Bac, Paris.

BAILLY, professeur an lycée d'Orléans (Lojret).

A. D'ABBADIE'REN ESKU IDATZIAK

Abbadia pri Mendaye'

1871; 9^{re} 29

Mon cher Monsieur

Je vous envoie ci-joint un ex^{re} de ma précieuse publication de 1836; elle n'a d'autre mérite que celui de renfermer le premier catalogue des livres basques, et est nécessaire. Fort imparfait. Mon catalogue M. S. dont je ne puis me dispenser est bien plus complet et je l'ai augmenté de ouvrages que je me suis permis de marquer au crayon dans votre liste ci-jointe. J'achèterais ces ouvrages, si j'en trouvais l'occasion. Votre catalogue est ci-joint inclus.

Vous dit on votre plan n'était pas le même que le mien, je ne sais si les notes à-coté vous conviendront; en tout cas, elles sont à votre service. Je vous renvoie des ex^{tes} que vous me promettez de votre histoire; j'en placerai dans ou trois chez des amateurs qui le apprécieront. Je vous remercie d'avance pour les Faens de Guipuzcoa de 1866.

Vous auriez eu ma réponse plus tôt si je n'avais été absent à Pau pour les affaires communales de Mendaye?

Agréez l'assurance de mes sentiments très-distingués

Antoine d'Abbadie


- Ouvrages publiés en Espagne ou basque ou sur le pays Basque.
1. Adiciones al diccionario de Antiq.^{da} de Navarra (Yanguas) Pampuna, 1843. 7
 2. San Ignacion e jaxakoren... (Landeras) edición de 1761, 1763 (2^{da}), 1790, 1818. 7
 3. Aldarico Sacramendu... (Landeras) 1859, 2^{da}, 1862. 7
 4. S. Teresaren... novena. Vergara 1849. 7
 5. Amoreta eta doloretza... pausac, 1856, 1860. 7
 6. Apologia de la leng. basconq. (Ostaza) Madrid 1803. 7
 7. Apuntes sobre la... Navarra (Yanguas) Pamp. 1838. 7
 8. Arte de aprender la leng. basconq. (Sterriaga) 1841. 7
 9. Avisos osasunsoac... Bilbon 1860. 7
 10. Dameritaa... icesbideac. 1803, 1816. 7
 11. Federatzi sarena Maria, Tolosan 1857. 7
 12. Cristian Doctrina (Lohoverria) 1822, 1852, 1853. 7
 13. Escu libarua (Amibano) 1821, 1852, 1854. 7
 14. Bozquijo de la organizacion... de Vizcaya. 1870. 7
 15. Laltariac... goquiac. Tol. 1849. 7
 16. Santa a... Miquel (Jaxta) J. Sab. 1829. 7
 17. Cartas... sobre la leng. basc. (Hervas) 1784. 7
 18. Catál. de los obispos de Pampuna, 1614. 7
 19. Leuntar Santuren biatrac J. Sab. 1855. 7
 20. Censura critica (cara de Mendonça) Mad. 1806 (los inv. p. d. n. l.). 7

Monsieur Nicolas de Volatice

21. Comercio vide... (Ant. de) Barcelona 1868
 22. Crónica de Aquino deca (Moguel) 1809, 1858, 1856, 1824
 23. Crónica... v. castellana (esta) 1681
 24. --. Aires Vasc. J. Lab. (1864)
 25. Compromiso (Fáb. Moguel) 1772
 26. --. guerra de Yruya Mad. 1839 (No. del de donde n)
 27. Comunic... (Roma) 1869
 28. Confesio ma... (Moguel) 1803, 1843, 1850, 1800, 1849
 29. Conferencia... (Aguirre) 1807, 1823, 1858
 30. Congregacion (Moret) 1766
 31. Constitucion... de Roncesvalle Pampl. 1791
 32. Crista doctrina (Iruya) 1830, 1804, 53, 52, 1742, 1775, 1828, 179,
 33. --. --. (Lara) 1773, 1775
 34. --. --. (Arribas) 1850, 1854, 155
 35. --. --. (Guara) 1858
 36. --. --. (Yruya) 1867, 1864
 37. --. --. (Roma) 1858, 1863, 1828, 1854, 1855, 54, 55, 56, 1853
 38. --. --. (Lara) 1856
 39. --. --. (Astete) 1862
 40. --. --. (Olaceta) 1824, 1855, 1767, 1775
 41. Cronica (Yruya) Pampl. 1843
 42. Curia Santuaria... 1848
 43. De la ant. lengua (Aires de Faza) 1887
 44. De la lang. lusquera (Araquevel) 1856
 45. " " " mimera (Kedema) 1620
 46. Descripcion... (Echeverria) 1821, 1863, 1868
 47. Dialecto ant. guipuzcoana... Mad. 1856
 48. Diccion. (Astigarraga) 1825, 37, 39, 40, 48, 55, 56, 61, 66
 49. Doctrina... (Ello) 1561
 50. " " (Ochoa) 1715
 51. " " (Arzobispado) 1758, 1856
 52. Derecho de natur... del pie del puente. Caragoga 1621 (Caragoga) No
 53. Doucellai... (Claret) 1864
 54. Eguenoroa lan-on... (Moguel) 1820
 55. Ejercicio... (id.) 1849
 56. Elisaco... (Bartolome) 1839
 57. Fuero de Yruya 1643, 1575, 1762
 58. El Guipuzcoano instruido 1780
 59. " verbo regular (Larala) 1848
 60. Essayo de la leqisl. form. (Lara) 1859
 61. --. --. (Moret) et du Empereur de 1763 environ.
- Le titre manque pour continuer cette liste, bien plus détaillée dans mon M.S. Ceci suffit pour vous faire savoir de vous en la voir la suite
 A. J. A.

Obras marcadas p.^a M.^o D'Abbadie con lapis, interesantes comprarlas

Autores.	Título de Obras.	Observaciones
Arce, E.	Historia de España, 1778 U	Me catálogos reales y censurados, y no hay para
Arce, E.	Historia de España, 1778	No hay la quinta.
Alonso de E.	Guía de viajeros de España, 1778	Cuarta edición, publicada en España y Francia
Alonso de E.	Guía de viajeros de España, 1778	Real.
Alonso de E.	Historia de España, 1778	No se encuentran
Alonso de E.	" de España, 1778	"
Alonso de E.	" de España, 1778	Publicada en Madrid en 1778, pero no el 22.
Alonso de E.	" de España, 1778	Se acaba de vender
Alonso de E.	" de España, 1778	No hay.
Alonso de E.	" de España, 1778	"
Alonso de E.	" de España, 1778	No he visto más que un ejemplar en el comercio
Alonso de E.	" de España, 1778	de este la edición hecha en Madrid
Alonso de E.	" de España, 1778	No hay de venta
Alonso de E.	" de España, 1778	La reimprimó y está en pocas copias.
Alonso de E.	" de España, 1778	de este el original, pero no sé si hay
Alonso de E.	" de España, 1778	Imparte de vender.
Alonso de E.	" de España, 1778	"
Alonso de E.	" de España, 1778	Valor una peseta real.
Alonso de E.	" de España, 1778	Es pequeña y vale poco, pero es muy rara
Alonso de E.	" de España, 1778	de este el original y la 2. ^a edición
Alonso de E.	" de España, 1778	No recuerdo el valor, pero es poca real
Alonso de E.	" de España, 1778	" " " " "
Alonso de E.	" de España, 1778	" " " " "

Las obras arriba indicadas con el signo siguiente  que son la historia de España, de Garibay, y la historia de España, y la historia de España, y la historia de España; si el Sr. D'Abbadie interesa para leer y tomar datos, yo le prestaré por algunas meses y le enviaré en visita de un viaje p. ellas que dice de las obras antiguas e interesantes, pudiesen llegar a la imprenta, pero es inseguro si pudiesen que así puedan comprar. Las demás obras indicadas se comprarán así que recibas, y se le remitirán juntamente con los ejemplares de la historia de España, y con los folios Catálogo.

N ^o	Titre	Année	Notes
23	Conciencia (Cantabria), 1688. (Sota)		x
24	Botenadie, Guernica, 1888		x
35	Concepcion, 1888 y 87.		x
36	" " " " " " " "		x
40	" " " " " " " "		x
43	De la lengua y gramatica de los vascos, 1620.		x
47	Prolegomena a la Gramatica Vasca, 1888.		x
49	Gramatica Vasca, 1888.		x
50	Gramatica Vasca, 1888.		x
51	Gramatica Vasca, 1888.		x

x Abbadia, 287/ Monisterio de San Juan de la Virgen, 1888. (Miguel Jimenez, 1888)
 x Abbadia, 287/ Vocabulario de 1642. En apuntes.

P.S. Quand le pli renfermant mon livre et cette lettre a été présentée hier matin au chemin de fer, il a été refusé comme devant passer par la poste aux lettres.

Comme je n'ai pu aller à Bayonne l'envoi a été retardé. J'étais absent ce soir quand le facteur est venu. Il aurait fait partir demain, mais j'affranchirai le tout à Bayonne demain, en route pour Paris où je resterai jusqu'à la fin du mois.

A.D.A.

OLAZAR'TAR MARTIN'EN ERANTZUNA

Jose Maria San Sebastian (Latxaga) adiskide eta lankideak egin dauan itzaldiari erantzuna emotea dagokit, baiña ain zeatz eta sakon egin dauan azterketeari zelan erantzun, gaia berak aztertu dauan neurrian aztertu barj edo gaiari buruz gure elerti-liburuetan agertzen diran jakin garriak baiño beste oiñarririk euki barik? Eta, gaiñera berak egin dauan itzaldia ez da laburpen txiki bat baiño, ez da besterik berrogetak orriak dituan itzaldi batetik amar bat orrialdiren azalpena baiño.

Gitxienez beste erantzun au baj emon nai neuke: Itzaldi orretan azpimarratzekoak dira gai batzuk azpimarratu eta gaurko arazoan argiagaz sakonago argitu, gai batzuk beintzat.

IRU IZKUNTZA ETXE-BIZITZAN.

Antoine D'Abbadie'ren sendian egunero, iru izkuntza erabilten zirala esan dausku Latxaga Jaunak. Baita D'Abbadie berak izkuntza asko ezagutzen ebazala be.

Gaur euskaldunen etxeetan, zori txarrez, sarritan izkuntza bi erabilten dira: Euskerea ta gaztelerea. Guraso askok euskera berba egiten dabe eta seme-alabak, ikastoletara joaten diran seme-alabak, gasteleraz erantzuten dautse. Orrelan urteetan diarduen sendi bat eta bi baino geiago ezagutzen doguz.

Jazokizun orren aurrean, galdera b; egitera gagoz bearturik: Zergaitik jazoten da ori? Noiz-arte iraungo dau egoera orrek?

Lenengo galdereari erantzuteko, jokabide orretarako zio bat baino geiago dagoala jakiñik, auxe esan bearra dago: gurasoen euskerea eta seme-alabena, ikastoletan ikasia, oso ezbardinak dira, bata erri-euskerea eta batua bestea. Seme-alabak gurasoai "ori ez da orrelan euskeraz" esaten dautse eta guraso apalak beste au erantzun-bearrean aurkitzen dira. "Bai, zuek asko dakizue, guk ez dakigu euskeraz ondo egiten, ez dogu ikasi, zuek lez, ikastolan". Eta egoera onen errua, txiki-txikitatik erri-euskera baztertu daben legegilleak eta alperreko batu ori asmau dabenak dauke. Ez da erru txikia, eta egunen baten erriaren aurrean erantzun-bearra izango dau jokabide kaltegarri orrek.

Eta, bigarren galdereari erantzuteko, egoera ori azpergarrja da eta ezin irau izango daU luzaro. Guraso apalak burua makurtu bearko dabe eta erderaz egin. Au tamala, batez gure Bizkaja'n.

EUSKAL-ZALEAK, LUDI-ZALEAK

D'Abbadie munduan zear asko ibillitako gizona zala esan dausku, Latxaga jaunak, Europa'n lenengo, Ameriketan. Asia'n eta Afrika'n gero. Ori entzutean, atzeritarrak diran beste euskalzale batzuk gogoratu daustaz izlariak, batez be euskerea ikasi eta aztertu daben atzeritarrak. Esaterako Humboldt, Chuchard, Bonaparte errege-semea, Menendez Pidal, Korominas... eta beste asko. Olakoak laguntza aundia emon dautsoe euskereari munduko jakitunen aurrean.

Izkuntzalari erbestetarrak beti goratu dabe euskerea, ez auskaldunak baiño gitxjago.

EUSKEREAREN AURRERA-ERAGILLEA

D'Abbadie'ren bizitzan ikusten dan beste gauza arrigarri bat, berak euskerea indartzeko egiten eban alegiña da. Olakoak izan dira euskaldunen artean ugari, Aitzol'en antzekoak.

Orretarako artu ebazan bideak, Baiona'ko Abade-gai etxean eratu eban ikastaroa, lore-jokoak, olerki-sariketak, itzaldiak eta abar.

Orretan eredu dogu D'Abbadie. Eta gaur be egiten dira olako ekiñaldiak. Esaterako, Aita Santi'k eratzen ebazan Oleriti-Egunak. Baiña zori-txarrez! gaur ez dago euskera-zaletasun aundirik, olako egunetara ta ekiñaldietara entzule eta lankide oso gitxi agertzen dira eta eratzailleak azpertzuten dira.

Arlo onetan ez da aitzuteko gauzea, berak bere etxeko ormetan idazkiak euskeraz ipiñi ebazala. Or ikusten da berak euskereari emoten eutson garrantzija. Guk geure izkuntza, lenago beintzat, etxeko izkuntza lez artu dogu eta eritxi ori agertzen dau era gorrotagarrian Unamuno'k. Ondo dakigu, gaiñera, Naparroa'ko Erregeak euren kronikak idazteko iñoz ez ebela euskerarik artu, erromantze-era baiño, eta ori Gaztela'ko erregeak baiño be leenago. Gauza garrantzitsuak erderaz esateko oiturea beti izan da gUre errian, euskerearen kalterako. Arlo onetan azkenengo urteetan aurrera egin dogu, baiña geienetan ez gara eldu elebjasuna artzera baiño.

LIBURUEN ZERRENDAK

D'Abbadie'k liburuen zerrendak agertzen dauzanean, zaletasun aundia agertzen dau euskal-liburuak agertzeko eta Soraluze bere lankideak, oster, ez ebazan erderazko liburuak baiño ipinten bere zerrendan. Txalogarria eta onuragarria benetan euskalzale onen jokabidea.

Eta gure etxeetako liburutegietan ugari ete dagoz euskerazko liburuak? Irakurten ete dira gozoz?

ONDASUN BANATZAI LLEA

D'Abbadie gizon eukitsua, aberatsa, zala esan dausku Latxaga adiskideak. Eta aberatsa ez dirutan beste barik, etxeen jabetzaz be bai. Eta bere etxaldeak maisterrai emon eutsezala, orrelan etxe-jaun eta autarkidun izan daitezkan.

Alde batetik ondasun banaketan gaurko askorentzat eredu dogu, baiña jazokizun orrek gure euskal-agintaritzaren uts aundi bat agertu dausku, erdelerritik sartutako utsa: Etxerik, fogerarik, ez eukenak ez euken autarkirik, eta oneik ziran geienak. Arazo au ondo aztertu-berrekoa da, batez be aztertu barik dagoan Bizkai'ko Kofradien arazoa.

Zoriona ta eskerrik asko, Latxaga Jauna

Olazar'tar Martin'ek

ITZALDI BITARTEKO BERTSOAK

LATXAGA JAUNARI

- 1 Latxaga jauna, zuri begira
gaukazuz ordu onetan
jakiturizko itz egokiak
entzuteko asmoetan;
izkuntz eder bat emon euskuen
arbasoak ben-benetan,
ori goratzen alkartu gara
zure urrezko itzetan.
- 2 Zorioneko ordu ederra
eldu da gure artera,
izkuntz on baten jakituria
sartzeko adimenera;
askoren ustez egi ederra
da euskaldunen euskera
jakintza guriz bete beterik
dauka bere izaera.

LATXAGA ADISKIDE ON

- 1 Egun eder bat ospatzen gagoz
gure-izkuntzaren omenez
ederra da-ta baita jakintsu
gizon argien esatez;
geuria da ta, geuria da ta
arbasoen eskar onez,
danetik eder goitik beraiño
luze ta zabaltasunez.
- 2 jzkuntz aurrean dago gizon bat
euskeraz maite-mindurik,
jakiturizko elea da ta
euzko gizonak sorturik;
Latxaga jauna begira aurrera
ongi-naiez beteturik,
arlu aundiak daukaz euskerak
nora nai begiraturik.
- 3 Zure talentu buru argia
bijoa, beti, aurrera
euskal parnaso zoragarrian
itzez argi egitera;
euzko gizadi eta izkuntza
aurrera joango dira
seme on baten laguntasunez
jakiturizko gisara.

PAULIN

UESKA'KO EUSKERARI- BURUZKO GURE SAIAKETEN EGOERA.

(1) "Oroituko zera noski, irakurle, nola argitaratu nuan gure "EUSKERA ZAINZA" onen azkeneko zenbakian, aspaldi On Jaime Kerexeta'k bultzaturik, Ueska'ko gotzaidira bidalitako eskutitz au:

Ilmo. Sr Vicario General de la Diócesis de JACA.

Imo. Sr y hermano mío en el sacerdocio:

El conocidísimo escritor e historiador vizcaíno D. Jaime Kerexeta, a propósito de un artículo mío sobre el decreto del Concejo de Huesca de 1349 prohibiendo el euskera en el mercado de aquella ciudad, me escribe diciendo que él, aunque no recuerda dónde, tiene leído que, poco más o menos hacia el mismo año del decreto de Huesca, un obispo de Jaca mandó a los sacerdotes de su Ciudad Episcopal, que no dejaran de predicar en euskera. Me pregunta si yo sé, algo sobre eso, pues a él le interesaría "muy mucho" en estos momentos tener alguna confirmación. Como también a mí me resultaría interesantísimo para mis trabajos, me permito trasladarle a Vd la pregunta:

Sr. Vicario: sea por vía documental, sea por vía de mera tradición o leyenda, ¿ha llegado hasta Uds. alguna noticia sobre este asunto?

Pidiendo perdón por la osadía, y agradeciendo su atención se despide de Vd. afectísimo,

"Vicente Latiegui.

"Gauden bá erantzunaren zai", esanez bukatzen nuan nere agerpen ori.

* *

Eta, ona nola iritxi zaidan Jaka'tiko erantzuna. Ikus bera, ondorengo lerro aue-tan:

*"Obispado de Jaca.
Delegación del Patrimonio Cultural.
Archivo Histórico Diocesano.*

*D. Vicente Latiegui.
Vitoria.*

Por indicación del Sr Vicario General de esta diócesis contesto a su carta del 5 de Junio, para informarle que no tenemos conocimientos de la existencia de ningún documento que trate del tema que a Vd. le interesa, en los archivos de esta diócesis.

Le recuerdo que en las fechas a que Vd. hace referencia, Huesca y Jaca son un único obispado y que el obispo reside en Huesca, por lo que si existe tal documento podría hallarse en los archivos catedralicio o diocesano de la ciudad de Huesca.

Por si pudiera servirle le envío fotocopia de la "Gran Enciclopedia Aragonesa", tomo XII, de las páginas que tratan sobre el tema de su interés.

Como podrá ver, no hacen referencia al documento en cuestión e interpretan de otra manera el decreto del Concejo de Huesca al que Vd. también cita.

En este momento es lo único que puedo informarle sobre el tema, deseando que su búsqueda sea fructífera"

Le saluda atentamente

Felipe García Dueñas.

Archivero".

Ueska'ko Archibuetara jaurti dit txukunki pelota Jaka'ko Elizbarrutiko artxi-buzaiñak. Badakit Ueska'ra idaztea alperrikako gauza izango dala, baiñan ari bakar bat ere korapillatu gabe gelditu ez dedin, onako gutun au bidali diot, gure Ueska'rako ibillaldian, Latxaga ta neri ain gizon atsegiña iduritu zitzaigun On Xabier Osés, elizbarruti artako Gotzai Jaunari:

*

"Vitoria 11 de Agosto de 1997.

D. Javier Osés

Obispo de Huesca.

Querido D. Javier:

No me recordará Vd. Soy el sacerdote de Vitoria que en compañía de D. José María Latxaga, académico como yo de "EUSKERAZAINTZA Akademia Popular del Euskera", tuve, mejor dicho tuvimos -tanto él como yo- el gusto de saludarle, cuando nuestro seguimiento de las raíces del euskera nos llevó hasta esa ciudad de Huesca.

Y tanto él como yo, quedamos gratamente sorprendidos de la forma cariñosamente sacerdotal con que Vd. nos recibió. Por eso, sin perder un punto del respeto que como a sacerdotes nos merece el Obispo D. Javier, hemos pensado que yo me dirija directamente al sacerdote amigo D. Javier para responder a una petición que el mismo D. Javier nos hizo y, a la vez, hacerle nosotros otra petición a D. Javier.

(1) Barka bezaidate irakurleek. Zenbaki ontan ez dut "Erdiaroko Euskal-Izenen Idazkera'riburuz, oiturazkoa dedan idazlanik argitaratuko. Badutala, iduritzen zait, ortarako arrazoirik aski. Izan ere, lantxo oietako bat gertutzeko, bearrezkoa izaten dut illabete bat osoa. Eta liburu ta paper asko erabilli, gaiñera. Idazki oiek danak Gazteitz'en gure Seminarioko liburutegi oparoan aurkitzen ditut. III ontan, ordea, itxirik aurkitzen bait da liburutegi ori, nekazaria aitzurrik gabe bezala, lanabesik gabe gelditu naiz ni ere. Datorren zenbakian jarraituko dugu, aspaldidanik esku-artean darabillkigun eginkizunik garrantzintsuenetakoa iduritzen zaidan ori.

Vd. nos pidió que no dejáramos de informarle de nuestras investigaciones sobre el euskera aragonés. Respondiendo a esa petición le envió dos fotocopias, en relación al euskera en la ciudad de Huesca.

Las otras dos fotocopias tratan del Euskera en la ciudad de Jaca: Por ellas verá que el archivero de esa diócesis hace referencia a los archivos catedralicio y diocesano de Huesca.

Y ahora nuestras dos peticiones a D. Javier:

- En cuanto a las dos últimas fotocopias, ¿puedo permitirme pedirle a Ud. tenga a bien pasárselas a los archiveros correspondientes? Sé que de sus investigaciones sólo sacarán en limpio que documentalmente "del asunto no se sabe nada". Pero...

- En lo referente a las dos primeras fotocopias verá Vd que D. Federico nos promete estudiar los siglos XVI y XVII. (No creo que en la ciudad se hablara euskera en esos siglos, aunque quizás sí en los altos valles de la Provincia). Con posterioridad nada sabemos de D. Federico. Comprendo que él es hombre de edad, y que el estudio, en los archivos, de esos dos siglos es lento y pesado. ¿Podría Vd. D. Javier, siempre que ello no le suponga molestia, ponerse al habla con D. Federico? Estoy seguro que ese noble señor, que pudimos ver es todo un caballero, trabajará más a gusto, si sabe que a su Obispo, como bascón que es, le interesan los misterios de la lengua de los bascones: la vieja "lingua navarrorum": `la lengua que es la mía", en frase de S. Francisco Javier a sus compañeros de Roma.

Es posible que también lo único que saque D. Federico de sus investigaciones, es que, documentalmente "sobre el asunto nada se sabe". Pero saber que no se sabe, ya es sabiduría. Y muy útil!

Quiero asegurarle, D. Javier, que volvimos encantados de Huesca por lo bien que allí nos trataron tanto el sacerdote encargado del seminario, como D. Federico, y, por escrito, la nueva archivera municipal (a la que procuraré, conocerle personalmente para mostrarle nuestra gratitud e interesarle en estos temas), y el "chef" y los camareros del restaurante donde comimos, y como no, el Obispo de todos ellos.

Eskerrikasko, D. Xabier, Reciba nuestro cariñoso saludo y mande cuanto guste a estos sus dos amigos.

Vicente Latiegui"

Jaka'ko Artxibuzaiñak berak dasaidan lez, bere eskutitzarekin batera, "Aragoi'ko Iztegi Nagusi" orren lau atal bidali dizkit: "VASCO EN ARAGON", "VASCO IBERISMO", "VASCONES", eta "VASQUISMOS". Danak, soilki egillen lenenizki utsez izenpeturik dagertze.

Ez dira luzeak: oso laburrak baizik: laburregiak: lauak alde batetik bakarrik idatzitako orri bitan errez sartzen bait dira. Nere ustez, garrantzitsuena aurrenekoa da: CH.V.O.k izenpetzen duana; ona emen, euskeraz jakerturik, bere mamia:

VASCO EÑ ARAGON: Euskera ez ornen da indoeuropatar izkuntza. Erromate-aurretik Iberiar-laugarlean itzegiten ziran izkuntzetatik, bakarra ornen da bizirik irauten. Orain, "en la región vascongada y norte de navarra" itzegiten dala dio. "Región Vascongada" esaerak, euskera itzegiten dan tokia esan nai du. ¿Ez ote da bá Euskalerrja —itzaren egiazko zentzu bakarlean gaiñera, ots, euskeraz itz *egiten* duan erria — Ñaparroa'ren iparraldea?. CH.V.O., ordea, beste bide batetik dijoakigu:

Españi'k Euzkadi menderatzeko sortu eta emen arrokeri txatxuzko norberekeriak eraginda ontzat arturik daukagun bereizketa erioagarriaren bidetik: Gure Euzkadi bakarra bitan zatitzen digun bide madarikatu ortatik: "NAVARRA-VASCONGADAS": (Orain, "NAVARRA-EUZKADI")

Ez genuan, eta ez genuke, Euzkadi itza erabili bear politikaren arloko erakundegintzan, "a dos" gauden euskotarrok "a uno" egotera iristen ez geran arte. Oartu al zera gaur, gure iraultzalari biurri guztiek Euzkadi ez baiña Euskalerrria geiago erabiltzen dutela, eta alderantziz, gure etsai españizaleek Euzkadi atsegiñagoa dutela Euskalerrria baiño.

Zergaitik ori? Aiek, —gure iraultzalariet—, Arana Goiri'tar Sabiñ'i djoten gorrotoagaitik. Auek, —españizaleek—, "Euzkadi" itzak gaur, ango, —Naparroa'ko—, eta emengo, —Iru Probintzietako—, biztanleen artean zatiketa garratza sortzen duala ikusi dutelako.

*

Itzuli nadin ordea, nere ildora berriro:

CH.V.O.k dioskunez, bai ornen da Ribargotza garaiean aurkitutako arri idatzi bat: I mendekoa ornen da gaiñera. Bertan, euskal-sustraja duten itzak agertzen ornen dira; eta euskerarenak diran izkuntz-era batzuk. Arri ori Las Paules izeneko errian agertu ornen zan. Araba'n bada PAUL izeneko erri bat. Beste Paul bat Gaskuña'n dago, Akitani'ko Landetan. Or jaioa dugu ainzuzen Donebixente Pauldarra.

Euskera Aragoi'ko iparralde guztian mintzatu zala dio, eta Aragoi'ko euskeraren egomuga, "Cinco Villas"ko lurraldetik Barbastro'ra luzatzen zala. Ezpairik gabe dira laburregiak muga oiek Aragoi'ko Euskerarentzat. Ibero ibaietik egora, Zalduba ber-beretik 25 kilometrorra dagoan Jalon ibaiaren arnetik asita, —antxe dago ainzuzen "Alabona Basconum", gaurregungo Alagon—, ibai ortatik asita, Euskalduna zan ba, sarkalderuntz, Turiasona (Tarazona)'ra arteko lurralde —gaur zaragozatar— guztia.

Gero, adibide lez, toki-izen zerrenda bat dagerkigu: aski luzea: alare oso oso motz gelditzen dana. Egia da, izen oiek soilki adibide-eran emanak dirala; ez bait zuan CH.V.O.k "Aragoi'ko Iztegi Nagusia"ren neurri motzeko atal ontan toponimi-ikerketan sakon bat egiteko asmoz lumarik artu.

Toponimi guztiaren %30'a ornen da Ribargotza'n Euskal-toponimia, Sobrarbe'n %40'a, Guara mendi-katearen inguruetan %50'a, eta Aragoi Zarrean %70'a. Ez da gutxi, baiñan, alatagutziz, lurralde oietako toponimia Ugariagoa dala esango nuke nik, oker ibiltzeko batere bildUrrik gabe. Gaiñera, aipatzeke gelditzen da CH.VO.-ren zerrenda ortan Jalon Ibaiaren lurraldeko toponimi guzja, ta, zer esanik ez, Katalauni'koa.

*

EUskera, Aragoi'tik X mendean ezereztu zala, diosku CH.V.O.'k: *"En cuanto a su duración cronológica, sólo se puede dar una fecha aproximada de su definitiva desaparición, siendo ésta, con casi toda seguridad, la primera mitad del siglo X"*. Ez ote du, Ueska'ko Udalak 1349'an euskeraren aurkako agindu ura ezagutzen? Ez bait da egia, Jaka'ko artxibuzain jaunak diostan bezala, CH.VO.'k agindu ari beste ulerkera bat ematen diola. Agindu aren esannaia ukatu besterik ez bait du egiten. Eta ori, arrazoi bat bakarra azaldu ere egin gabe! Bereala itzuliko naiz Udal euskotarraren garrantzi aundiko agindu aren azterketara. Jarrai dezagun orain CH.V.O.-ri arretaz entzuten:

Euskeraren ezabaketa ez ornen zan bat-batekoa izan. Luzaro lurralde aiek elebidunak izan ornen ziran bá. Egia.

Nik, aurrena elebidunak izan zirala, esango nuke: euskeraz ta lateraz, elebidunak; gero irueledunak: euskeraz, lateraz eta erromantzeaz. Aragoi'ko, Katalauni'ko ta Frantzi'ren egoalde guztiko erromantzeak Sortaldean eta Iparaldean, eta Sartaldean Gaztelerrikoa, euskeraz m̃ntzatzen ziran ezpaiñetatik sortuak bait dira danak.

* * *

"Las lenguas, además de fronteras geográficas tienen fronteras territoriales". Ederki esana. Orduan bezala gaur ere, "lurraldeei-buruzko mugak ez eze, gizarte-maillei-buruzko mugak" ere bait ditu gure artean Euskerak. "Antziña artan aUndikiek, elizgizonek eta eskribauek" lateraz egiten zuten bitartean euskeraz egingo ornen zuten erriko jendexeek. Egia, guzti ori ere.

Gaur bertan, gure emakumezkoek —ez danek, baiñan bai ia danek, *"moraliter omnes"*—, erderaz egin naiago bait dute, edozein erdera euskera baiño "elegantegoa" dalakoan.

**

Salerosketarako eta gizarte-bizitzarako, aurrena lateraz eta gero erromantzez itzegiten ikastea, bearrezkoa gertatzen ornen zan orduan ere, eta, azkenean, izkuntza indartsuagoak zearo ezabatu ornen zuan aulagoa, ots, euskera. Ez dio gezurrik; ori ari bait zaigu gaur ere gertatzen.

* *

"Este proceso (euskeraren erieotzarako ibillera, alegia) estaría totalmente consumado a mediados del siglo X (ori, Ch. V.O Jauna, ez duzu zuk zerorrek ere sinisten), aunque algunos vasquistas, basándose en una interpretación incorrecta de una frase aparecida en las ordenanzas municipales de la ciudad de Huesca (siglo XIV), piensan que en los alrededores de esta ciudad se hablaría todavía vasco por estas fechas. Realmente esta teoría no ha sido todavía demostrada, y todos los datos que poseemos demuestran que es muy improbable que fuera de ese modo".

— ¿"Todos los datos que poseemos" CH.V.O. Jauna?. Orrela izatekotan, "todos los datos oietako bat, —bat—bakar—bakar—baka—bat bederen—, zergaitik

ez diguzu zure esaldi ortan aipatu?. Orrenbeste "datos" izanda bat bakarrik ez aipatu izatea, diozuna gezurra dalaren adigarri ziurra dUgu. Lotsagarri utzi duzu zientzien araura idatzia izan nai duan "Gran Enciclopedia de Aragón" dalako ori.

— *"Esta teoría no ha sido todavía demostrada"* CH.V.O Jauna? Ueska'ko Udalaren agindu ark *esaten duana esaten duala* esaten duanak "demostración" bearrik ez du. *Esaten duana esaten ez duala* esaten duanak du "demostración"—bear gaitza. Esaten duana esaten duala esateak, ez dezake "demostrazio" bat besterik izan: Aginduak esaten duanaren aurkezpena. Eta ona emen, Agindu ark esaten duana:

*

"Item nuyl corredor non sia usado que faga mercaduria ninguna, que compre ni venda entre ningunas personas faulando en algarauia ni en abraych nin en bascuenr".

Euskeraz:

"Eztare, ez bitez artekariak, edozein pertsonen artean saldu edo erosi dagian merkataritzarik, arabieraz, eberkeraz edo euskeraz mintzatuz egitera ausartu".

Ta, nere ustez, esaldi ontako "egin" aditzak "LEGEZKOA EGIN", ots, "sale-rosketak legeztatu" esan nai dualako,

Ona, ora; n, emen, Ueska'ko Udalaren 1349'ko "Ordenanza" edo "Agindu-Soda" txit garrantzitsu orri-buruz, beinbatez beinbetirako ziurki ezarririk utzi nai nituzkean punttuak:

1^a: Agindu or; ez da bakarra, ez da Ueska'ko Udalak so;ilki bein emana; geroago ere Ueska'ko Udalaren erabakietan *"repetido hasta el siglo XVII"* agertzen or;en da ba, Uri artako artxibuzaiñak idatzi didanez.

2^a: Agindu ortan iru izkuntza agertzen dira: arabiera ("algarauía" edo "algaravia", "u" oiek "y" bait dira), eberkera ("abraych") eta euskera (" bascuenr").

3^a: Iru izkuntza; baiñan, —au bai gauza arrigarria!—, iñork ez du sekulan ezer esan aurreneko bi aien aurka. Irugarrenaren aurka, euskeraren aurka, jo dute espainizale guztiek. Mirarizkoa bait da gizakume espainiar eskolatuek —lenen maillekoek izan ezik— euskerari ta euskalerriarekin zer ikusirik izan dezakean orori dioten bildurra. Kontzjentzipeko b;ldur orrek eraginda, Ueska'ko euskerari egiztasuna kentzen saiatu dira —eta saiatzen dira oraindik ere— al duten guztia.

4^a: Ez da zailla, jaun erretxindu oientzarako erantzuna: Aginduak, Ueska'ko Urian Arabiera, Eberkera era Euskera itzegiten zizala aldarrikatzen digu. Arabierari ta Eberkerari-buruz diona egja ba'da, egja da Euskerari-buruz diona ere. Beraz, egia da Ueska'ko Urian XIV mendean Euskera itzegiten zala. Geroago ere...¿bai Ote? ¿XIV mandara ade? Bai Ueska'ko Udalaren artxibuzaiñak diostana egia ba'da. Dokumentuak jaso zai nago, ori batere zalantzaketarik gabe oiukatu aal izateko.

5^a: Agindu ori Ueska'ko azokarako emana izan zan. Ez du ori iñork ezpaiean ipintzen.

6^a: Agindu ori, ez da azokara joaten ziran salerosleentzat emana; soilki "corredors" edo "artekarientzat" emana da.

7^a: Agindu ori ez doa Uriko azokan —eta askoz gutxiago Urian bertan— euskeraz debekatzera. Euskeraren erabilketa moztutzera dioa, eta, ori, azokan bakarrik eta soilki artekariaren eginkizunetan.

8^a: Esan dugun bezala, Agindua artekariarentzat bakarrik da; ez, azokako jendeentzat. Baiñan ez aie; ez auei, ez die euskeraz itzegitea debekatzera.

9^a: Zer da bá agindu ark galerazten duana? Nere ustez, soilki salerosketen agiriaren idazketa (la inscripción del acta de venta) euskeraz egitea.

* *

Saia nadin esan dedan au egiztazten, erdiaroko dokumentuekin ain sarritan gertazten dan bezala, oso illuna bait da Agindu onen idazkera ber-bera:

"Nuyl ("ningún", gazteleraz) corredor non sia usado ("osado", izango litza-ke gazteleraz) que FAGA *mercaderia ninguna que compre ni venda entre nin personas*", dira aginduak erabillitako itzak, eta, nere ustez izki nagusiz idatzi dedan itz ortan —eta izki beltzaz idatzi ditudanetan— dago agindu osoa zuzenki ulertu aal izateko giltza.

Dokumentu ontan FAGA itzak "gastelerazko "levantar", "alzar", "inscribir", "legalizar" esan nai du: euskeraz, "jaso", "idatzi", "legeztatu".

"Mercaderia que compra ni venda" itzek itxura dotoreegirik ez dute gaurko gazteleraz; "redundancia" edo "birbirketa" bat besterik ez bait dira. Zentzu gelago dute euskeraz eta agian zentzu geiago zuten erromantzez ere, euskeratik bertago bait zegoan Euskalerrian jaio zan erromantze ura: "ez beza, *saldunaz erosi dagian merkataritzarik legeztatu*".

10^a: Au da beraz Aginduak esan nal diguna: "Artekariak ez bezate, iñolako pertsonen artean zerbait saldu naiz erosteko egiten dan merkataritzarik, euskeraz legeztatu". Zergaitik uste dedan ori?

11^a: Agindua azokan biltzen ziran jendeentzat ez dalako; soilki "corredors" edo "artekariarentzat" dalako: pertsona ofizialentzat, beraz: udalaren serbitzariarentzat: Artekariak, ordea, ez dute salarerosketarik egiten: saldu ta erosi diranen "akta", "fedea", "agiria" jaso besterik ez dute egiten. Gure frontoietako artekariak ere, ez dute beraiek ezer jokutzen. Eta, boltsa-aretoetakoek ere, ez dute beraiek "akziorik" saltzen ez erosten. Soilki, saltzailleen eta erosleen arteko bitartekotasuna egiten dute: Ori baita artekariaren eginkizuna: bitartekaritza; eta ezer ez, besterik.

* * *

12^a: Agindu ura Euskalerritik Ueska'ra joandako argiñentzat emana izan zala, esan zigun gur; Uri artako artxibuzain izandako On Federiko Balaguer jaun benetan jakintsuak. Baiñan auzi ontan atzipeturik dabil, Agindu ark ez du ba argiñik aipatzen. Argi-argi, eta soilki, artekariak aipatzen ditu; eta agintzen duana aientzat bakarrik agintzen duala diosku

13^a: Agindu ura, urtean bein ospatzen ziran Azokaldi Nagusietarako, ots, "para las Ferias de San Lorenzo" (2) izan zala emana, ere, esan ol dute XIV mendeko uestakarrak euskaldunak izan zitezkeanik ezin sinistu duten españizaleek. Aginduak ordea, ez du Azoka Nagusirik aipatzen. Egunero azokan egiten ziran salerosketarako izan zan emana.

Azkeneko punttu ori argi gelditu dedin eman dezagun ementxe jakitera "Ordenanza" ark, agindu asko dituala, bai gutxienez irurogei, eta, danak, eus-

kerari-buruzko au bezela, Urian eguneroko bizitza antolatzeko eman ziran aginduak dirala.

14^a: ¿Urian bertan ez baiña, inguruko baserrietan egingo zala euskeraz? Aginduak ez du inguruko baserriak aipatzen. Alderantziz, euskera Urian egiten zala adierazten digu. Izan ere, baserriarrak uriko azokara beren zituak jiritarrak! saltzera joaten dira. Ba, Ueska'ren inguruko saltzaille baserriarrak bezala Ueska bertako erosle uritarrek ere euskaldunak ez ba'ziran, jez zan Ueska'ko azoka artan salerosketa aundirik egingo!

Ez du balio, inguruko baserriak aiek eta Ueska'ko uritarrek alkar kiñuka ulertuko zutenik esatea, Aginduak, argi-garbi, *kiñuka* ibiltzea ezbaiña, uskeraz *itzegitea* debekatzen bait du.

15^a: Uriko jendeak ez ezé, Uriaren artekari ofizialak ere euskaldunak zirala diosku Agindu arek, naiz itzez-itzez orrelakorik esan ez; euskaldunak izan ez ba'lira ez bait zituzten salerosketen agiriak euskeraz legeztatuko.

16^a: *Algunos vascófilos*, dio "Gran Enciclopedia de Apagón"ek, *basándose en una interpretación incorrecta de una frase* (zer gerta ere, ez du esaten "inorrección" ori zertan dagoan) *aparecida en las Ordenanzas municipales de la ciudad de Hueca (siglo XIV), piensan que en los alrededores de esta ciudad* ("en los alrededores" bakarrik ez; "en los alrededores" eta Urian bertan) *se hablaba todavía el vasco por estas fechas (por estas fechas* eta geroago ere bai, adiskide). *Realmente (¿?) esa teoría no ha sido siquiera (¡!) demostrada* (len ere esan dizut, CH.V.O Jauna, dokumentu batek esaten duena esaten duela esaten duenak ez duala "demostraziogintzaren" bearrik; dokumentua bera erakustea naikoa duala. Esaten duena ez duela esaten duenak duala demostrazio-bear gaitza).

*

Bai, "Aragoi'ko Iztegi Nagusi" orrek "demostrazioak" aipatzen ditu, onako au esanez: "Realmente esa teoría no ha sido siquiera demostrada. Todos los datos que tenemos demuestran que es muy improbable que fuera cierta".

¿"Todos los datos que poseemos", adiskide? Zergaitik ez duzu ba, bat bakarrik agertzen?. Batez ere, "que poseemos" ori egia baldin ba'dal

Zuk, ordea, ondotoxo dakizu, esan dituzun mamukeri oiek danak egjazko-tasan orotik milla leguaz urruti daudela.

Orrela idazte ori jendea atzipetu nai izatea da. Gezurra esatea.

Amai dezagun "Gran Enciclopedia de Argón"eko atal onen azterketa, guretzat alaigarri dan gertakizun au gogoratuz:

Ueska'n, —Urian bertan—, XIV mendean Euskeraz itzegiten zala.

¿Geroago ere bai?

**

Ez ninduke batere arrituko Ueska'ko mendietan XVII mendean Euskerak oraindik bizirik ziardula jakiteak. Bañan, neri, zail egiten zait Urian bertan XVII

(2) Agoz-ago iritxi zaizkigun albisteek, Donelorentzo diakonoa euskalduna zala dasaigute; Ueska'n bertan jaioa. Orixe'k bere "Eguneroko Meza-Liburuan badu oarpen mamitsu bat, "Laurentius" lateratutako Donelorentzo'ren izenaren gunea, LAUREN, laterazko itza ez dala esanez.

mende ortan euskeraz egiten zitekeanik sinistea. Ez dut, orren aurka, arrazoi-rik batere. Baiñan, alare, —jasan izan dugun ezikeraren ondorioz, euskeraren "ezereztasuna" ain barruraino sarturik daukagulako-edo—, neri zail egiten zait XVII Ueska'ko karrika ta enparantzetan bertako jendea euskeraz mintzatzen zanik sinistu aal izatea.

* *

VASCONES du izena Jaka'ko artxibuzaiñak bidali didan "Gran Enciclopedia de Aragón"go bigarren atalak. G.F.C.-k idatzia da. Irakurgarria, benetan.

— Onako lurralde auetan bizi ornen ziran baskoiak: "*Las Cinco Villas, la Jacetania* (Jaka'ren lurraldea, ots, Aragoi Zarra), *parte de la ribera del Ebro hasta Aragón inclusive por ambas orillas*" (edo, berdin dana, Ibero ibaiaren egoaldetik, Jalon eta Monkaio arteko lurraldea), *y el territorio de Navarra*.

Urumea ta Bidasoa bitarteko Gipuzkoa'ren puska aitatzea aztu zaio.

"*Documentados muy escasamente*", ornen dira Baskoiak. Ez motell! Alde-rantziz, jaro aratan Erroma'ko idazlerjk bikaiñenek aipatuak dirala esango nitek nik-eta! Salustio'k eta Tito Libio'k aurrena Krist'aurreko I mendean, Estrabon'ek gero Krist'osteko I mendearen asieran, eta bereala, Ponponio Mela'k, Plinio'k, eta Tolomeo'k.

Baskoien uririk garrantzitsuenak auek ornen ziran: "*Calahorra, Pamplona, Cascante, Alfaró y Muscaria, ésta de incierta reducción*". Muskaria, ¿non ote zegoan asmatzeko zaila? Ez, adiskide. Muskaria, gaurengungo Tudela bait duk, ezpairik gabe.

Oraindik Muskaria esaten zaio uri orren ondo-ondoko alor bateri.

Muskaria itzak euskal-itxurik ez duala? Bai, idazle erromatarrek, euskal-tokj-izenak idazterakoan "R" ta "RR" askotan nasten zituztela gogoratu nai ba'dugu. Kalahorra eta Alfaró aipatu dizkiguzu. Badakizu noski zerorrek aitatutako edestilari oiek beraiek urj bi oien izenak batzuetan Kalagurri eta Grakurri idatzi zituztela, eta Kalaguri ta Grakuri beste batzuetan. Egi'iozu Muskari'ri aldakuntza bera Muskarri biurtuz, eta laister oartuko zera, era ortan artzen duan euskal-tankera nabarmenaz.

"*Poco antes del año 1000 antes de Cristo*", etorri ornen ziran gaurko bas-koiak Auñamendi'z onuntzako lurrotara.

Ez duk ori, edestiaurreak eta etnologiak erakusten digutena: "Gure leizak margoztu zituzten kromañondar aiek euskeraz mintzatzen al ziran"?, galdetu nion On Joxemigel Brandiaran'darrari bere azken-urteetako batean. "Bai, —erantzun zidan batere zalantzarik gabe—, euskaldunak ziran eta euskeraz mintzatzen ziran. Guk ez genien ulertuko, bañan oartuko giñan euskeraz ari zirala". Orduan nerekin zegoan Joxe Karrera Gazteiz'ko ola-gizon eibartarra dut On Joxemigel'en erantzun orren lekuko.

Aburu berdiñera eraman du Latxaga euskal-aditzaren azterketak, Paris'ko Sorbona'n aurkeztutako Doktoradutzako Tesian aitortzen duanez.

* **

Anitz egokia iduritzen zait onako esakizun auxe: "*Conviene precisar que lo*

que hoy llamamos vasco no era únicamente la lengua de los vascones. Hablaban idioma similar, si no estrictamente el mismo (azpimarraketa nerea), carstios, autrigones, vrdulos, iacetanos, y, al este de éstos, otros pueblos pirenaicos, al menos hasta Tosa del Mar (Iturissa) y el Rosellón Francés").

Ederki esana, bañan, ala ere, motzegi gelditzen dana. Euskera urrutirago iristen bait zan sorkalderuntz Galietako itxas-ertzean. Bai beintzat Narbona'raíño, eta, bearbada, baita Rodano ibaia Lurra'tltxasora sartzen dan lurraldearaiño ere. Iparraldera, berriz, Garona ibaiaraiño, eta, andik gora, antziña-antziña, seguruaski Dordoña'ren aranetaraiño!

Rosellón aipatzean esan zezakean, an zegoala, Lurra'tltxaso aren ondo-ondoan, gaur Elne ta orduan ILIBERRI (edo ILIBERI, edo ELIBERRI) izendatzen zuten uria. "Episcopus Ileberritanus (edo Eliberritanus) esaten dio ango gotzaiak bere buruari, VI mendean, Tarragona'ko eta Gerona'ko kontzilioetan izenpetzerakoan: "Orontius in Christi nomine episcopus Eliberritae Civitatis".

Tosa del Mar, –antziña'ko Iturissa–, Gerona'ko probintz;aren egoaldean dago, Bartzelona'ko probintziaren mugatik bertan, eta Cala de Giberola esaten zaion itxas-kolkoaren auzoan. Antxe bait dago Giberola (¿Gibel-Ola?) izeneko erriska ere.

Galietako egoaldeari dagokionez, berriz, onako itz auek zeuk zerorrek esanak dira, G.F.C. Jauna:

"Los autores grecorromanos advirtieron que los aquitanos se parecían más a las gentes de Iberia que a las de Galia, y son pocas las dudas que caben acerca del parentesco estrecho entre el suroeste francés –Bascuña, Bascuña– con las Vascongadas hispánicas, y entre los aquitanos (akkitanoí en griego) y los lacetanos (iakketano0".

Jakiña ba! Gaskoiñak, Baskoiak, Akitaniarrak eta Jaka'ren inguruko laze-tiarrak, (ots, Aragoi zarreko jendeak) eta baita Aragoi'tik sortaldera Auñamendiaren bi aldeetatik Lurra'tltxasoraiño'ko jendeak ere, danak, aide ez eze seni-deak ere bai bait ziran: Erri bat bereko semeak: Euskaldu

Zureak dira onako beste lerro auek ere: *"La lengua que posteriormente se ha llamado vasca, era la original en el Pirineo aragonés y catalán como lo ha demostrado solventemente Corominas y se hablaba en la Edad Media en numerosos puntos de la cordillera. Los romanos, a su llegada, encontraron vascohablantes en estos territorios, pues en ellos la influencia indoeuropea no llegó hasta el punto de sustituir ni modificar decisivamente la lengua, a la que, simplemente, hizo algunos préstamos".*

Ori egia da, baiñan oraingoan ere, C.F.C. Jauna, egi ori, laburregia gertatu zaizu: "encontraron vascohablantes en estos territorios" baiño obeki bait legoke, seguaski, "en todos estos territorios sólo encontraron vascohablantes" esatea.

Arrazoi guztiz diozu, erromateko euskal-leiñu zar aien mugak bereiztea, izugarriki dala neketsua. Eta, askotan, eskierki ez eze, gutxi-gora-bera ere lortu ez daitekeana; eta, ori, leiñu euskaldun aietako jendeengandik dokumenturik ia batere iritxi ez zaijulako: *"Las dificultades para la delimitación de las áreas de influencia de cada pueblo son insuperables y se derivan de la carencia casi absoluta de textos indígenas".*

Ez nator ordea bat zurekin, beste gai oni-buruz:

Las áreas de más fuerte romanización y latización perdieron muy pronto sus lenguas propias (¿zer esan nai du "muy pronto" orrek?): así el vasco desapareció de la Ribera y de las Cinco Villas bajas durante la dominación romana".

Ori, ordea, ¿nork esanda dakizu zuk? ¿Ez al zan anitz zintzoagoa izango, ori, oiñarri tinkorik gabe zuk asmatutako gauza dala, burua makurtuz aitortzea. Ez bait dakigu, adibidez Ejea edo Alagon, euskerak noiz galdu izan zezazkean.

* * *

Egia da, V mendeaz gero ("a partir del siglo V") eta, agian baita leenago ere —klasiko batzuen idaztietan bereiziki—, "Baskoi" itza euskaldun guztiak izendatzeko erabili zala.

Egia baitare, itz orrek "anker" eta "basati"ren zentzua artu zuala: ("*Vascón*" es, incluso, sinónimo de "*feroz*", de "*barbaro*").

Zentzu makur ori, ordea, ¿nork eman zion "Baskoi" itz jatorrari? Idazle Frankiarrek, eta Tajon bezala zapuzkeriak jotako Bisigotiarren batek. Euskaldunak menderatu naiez etenik gabeko borrokan ibilli; zitzaizkigun jende lapurrek.

* * *

Egia da, llergetarrekin —oroï Indibil eta Mandoño—, Jazetiarrekin, Suesitarrekin eta batez ere Akitaniarrekin izandako guduak azturik utzi nai ba'ditugu, erromatarrak euskaldunekin eta auek aiekin lagunkiro jardun zirala mendeakzear. Ta, -orain bereiziki Baskoietaz ari geran ezker—, esan dezagun Baskoiaik eta erromatarrak beintzat, bai, lagunak izan zirala beti.

Ez dut, ordea, onako beste onek zer esan nai duan ulertzen: Roma "*restituyoles sus límites antiguos y les devolvió el control público sobre la zona*".

Zer esan nai du orrek? Edesti aurretik Euskalerrira etorritako Aritar, Keltiar, Iberiar eta bi auen alkartzetik sortutako Keltibertar aiek, Euskaldunen menpean ipiñi zituala? Jende aiek, ordea, nere uste apalez, zearo euskotarturik zeuden Erromatarrak onera urbildu baiño askoz leenago ere, eta euskeraz itzegiten zuten: Euskaldunak ziran.

* * *

¿Tovar'en ustez "Bascones", "Barskunes"tik datorren itz Indoeuropatarra dala, eta, orain, itz ori Untermann'ek "Braskunes" irakurtzen duala?

Askotan entzun ditut orrelako gauzak.

Baiñan begira: Indoeuroparren izkuntza aspaldi ildako izkuntza da, eta izkuntza ortaz ez Tovar'ek ez Untermann'ek ez beste iñortxok deus askorik ez daki. Alderantziz, ordea, bizirik diardu oraindik euskerak, eta euskerari-buruz zerbait badakigunok bat eta b; baiño geiago gera.

¿Zerdalata "Baskones"en etimologia billatzeko iñork eskier ezagutzen ez duan, aspaldi usteldutako izkuntza batera jo? ¿Ez ote da zurragoa euskera beretik artutako beste bide au: Eusko, Uasko, Vasko, Vaskon, batez ere aspaldi artan "U" ta "V" alkarrekin oso maiz nasten zirala gogora ekarri nai ba'dugu?

* * *

Berdin itzegingo nuke euskal-itzen etimologia Iberieratik atera nai dutenei-buruz: Euskera ongi ezaguna dan ele bizi bat dugun bitartean zentzu gutxiko jardunkera dala aspaldi illik aurkitzen dan eta oso gutxi ta arras gaizki ezagutzen dan izkuntza batera jotzea. Irakurtzera ere, ez da oraindik inor iberiera naiko ziurtasunaz irakurtzera iritxi. Gaiñera, G.F.C.-dion bezala, "el vasco y el ibérico son lenguas remotamente parientes". Oh, —aideak diralako ori— iegia ba'dal

* *

Baña, izkuntzalari askok diotenez, iberieraz idatzitako arri-olek ¿euskera-ren usa; aundia dutela, eta iberieraz idatzitako arri-ol oiek irakurri aal izateko eta beren zentzua ulertu aal izateko, lanabesa lez, euskera erabiltzen dutela?

Ba...¿esango al dut? Bai: esan dezadan:

Esan dezadan, nere ustez apalez, Euskalerra Zarreko lurretan aurkitu diran iberiar-idazkiak euskal usai aundia izate orrek, auxe besterik ez duala esan nai: Arri-ol oiek, iberieraz ez baiña euskeraz daudela idatzia: Euskeraz idatzia izan zirala. Iberierarik ez dugu ezagutzen. Euskera bai. Zergatik uste bearko dugu ba, gure arri-ol olek, euskeraz ez baiña iberieraz izan zirala idatzia? Idazkera ori, Euskalerritik oso urruti ere, Iberiarrak bizitu ziran tokietan ere agertzen dalako, agian? Orrek ezin dezaiguke au besterik adierazi:

Izki-ikurrak iberiarrak dirala, eta euskaldunok guk gerok asmatutako izki-ikur-sorta euskaldun bat beñere izan ez dugulako, orain euskeraz idazteko lateraren izki-ikurrak darabilzkigun bezala, aspaldi artan, euskeraz idazteko, gure asabek, iberierarenak ziran izki-ikurrak erabili zituztela.

Ekar ditzadan, nere azkeneko aitorpen orren alde, GomezMoreno'k 1949'an ezagutzera emandako aburuak. Ikerlari orren ustez, egia bait dugu "*que la escritura ibérica servía para escribir no sólo la lengua ibérica algunos de cuyos vocablos suenan a vascuence, sino también el celtibérico que es una lengua indoeuropea de la familia céltica*"

* *

Euskalerra Zar edatsu artatik urruti aurkitu diran iberierazko idazkiei-buruz onako oar ttipi auek eskeiñi nai nituzke, nere jakintasun urritik:

—Iberiera ez dugula, oraindik, eskertasunik naikoz ezagutzen. Jakintsuek ere, iberieraz idatzitakoak *zer esaten duan irakurri ez baiña, zer esan nai ote lukean asmatu*, geiago egiten dutela. Ez bait da ain egia "Aragoi'ko Iztegi Nagusiak" dion bezala "*los textos ibéricos ya ciertamente leídos*" diralako ori. Alderantziz, askoz egiztasun geiagokoa da Mitxelena'tar Koldo'k 1966'ean esan zuan bezala, oraindik iberierazko idazkiak "herméticos textos ibéricos" dirala neurri txit aundian.

—Idazki oiek eskiertasun askiz irakurtzera jakintsuek iristen diranean, bearbearrezko gauza genuke, "vocablos que suenan a bescuena" edo "euskal-doiñu-duten" itz oietatik zenbat agertzen diran Euskalerra Zarreko lurretan aurkitutako idazkietan, eta, zenbat, lurralde oietatik at agertutakoetan.

* *

—Euskera mintzatu zan lurretik at aurkitutako idazki iberiarretan ere "eus-

kal-doiñuko" itzak aurkitzea, ez litzake aurkikuntz arrigarriegia gertatuko. Leendik ere ezagutzen bait ditugu Andaluzi-aldean-eta euskal-doiñu nabarmeneko itzak. Aldizkari ontan bertan argitara eman zuan Latxaga'k, Julio Zesar'en "De Bello Hispánico" aztertzerakoan aurkitu aal izan zituan euskal-itxurazko itzen soda bat. Baiñan orrelako itz oiek, mundu zabaleko beste ele batzuetan ere agertzen dira.

— Guretzat, Euskalerra zarrean aurkitutako eta —"Iberiarrek" idatziak izan ornen ziran— arri-ol oiek, naiz iberieraren izki-ikurrez idatzirik egon, euskeraz idatziak diran jakitea, eta aspaldi-aspaldi-aspaldi artan euskeraz idatzitako ori, ziurki irakurri aal izateko gaitasunik aski lortzea izango litzake gerta lekiguken gertakizunik zoragarriena: oraingoz baintzat, amestu ere... amestu ez dezakegun gertakizunik izoriontsuena!

Latiegi'tar Bixente

BIZKAIERA- GIPUZKOERA: BERDIN ETA EZBERDIN (II) EZBERDINTASUNAK

Aurreko idazlanean bizkaierak eta gipuzkoerak non eta zertan bategiten duten zeaztu genduan, izkuntza bat osatzen dutela argitan utzirik. Au garrantzi aundiko ondorioa da. Ala ere, euskalki bion artean bestelakotasun edo bereiztasun aindiak dauzkagula ezin dezakegu uka, begibistan dugun arazoa dan ezkerero. Ezberdintasun auek ekarri nai nituzke lan onen eta urrenekoaren onetara, nagusienak beinik-bein, irakurleentzat jakingarri eta aberasgarri.

IRU bestelakotasun nabarmen ditugu, batez ere, bizkaieraren eta gipuzkoaren artean:

- Aditz iragankorrean (verbo transitivo) *egin* eta *ezan* laguntzaille bereziak erabiltzen dirala, *egin* bizkaieraz eta *ezan* gipuzkoeraz (eta beste euskalkietan).

- Iragankorrean bertan *nori* edo datibo-morfemak bestelakoak edo diferenteak dirala bizkaieraz eta gipuzkoeraz.

- Askotarako izkia *-z* edo pluralgillea bizkaieraz adizkiaren atzkenengo lekuan ezartzen dala beti, aldiko ezaugarria jarraian etor ez badadi, eta gipuzkoeraz, berriz, aditz-erroaren urrengo, ez aĵkenengo tokian.

Iru ezberdintasun nagusi oriek ez dira azal-azalekoak bestetara bai, ostera, izkuntzaren eta, batez ere, aditzaren barne-egiturari gun-gunean ikutzen diotelako. Eta gertakari au ez da gure garaiotakoa soilik, aintzinatekoa baizik, idatzizko euskera ezagutzen dugun aldi guztikoa gutxienez, eta kondaira-aurrekoa ĵzatea ere badaiteke. Batek badakĵ!!

Aĵpaturiko ezberdintasun orien ondoren, gure egunotan erabiliaren erabiliaz aditz iragangaitzean (intransitivo) eta iragankorrean (transitivo) dakusgun jokaera ezberdina ere gogoan izatekoa da,eraskin bezela gutxienez, ezberdintasun gaztien ikusgune orokorra eduki nai izanez gero.

1.- *EGIN* eta *EZAN*

Egin eta *ezan* aditz laguntzaille ĵragankorrak dira, esan dugunez. *Egin* laguntzaille iragankorra bizkaiera utsez erabilli oi da, eta *ezan* iragankorra, berriz, bizkaieraz ez, eta baĵ beste euskalki gaztietan. Guztiz arrigarria da, ene ustez, euskeraz laguntzaille berezi edo ezberdinen erabiltze au. Eta oraintxe aipatu dudanez, kondaira-aurre aldietaĵk datorkigun bereizkuntza, bearbada.

Aditz laguntzaille iragankor bi oriek, *edin* iragangaitzeko kidea bezela, ez dira era eta aldi guztietan jokutzen, zenbait eratan eta alditan baizik. ots, subjuntibozko aldietan -orainaldian eta leenaldian, sUbjUntibozko baldineran -aginteran (imperativo) eta aal-eran (modo potencial), beste era eta aldietan *ukan* (edo *edun*) bigarren laguntzaille iragankorra jokutzen dalarik.

Ian onetan *egin* eta *ezan* laguntzaille iragankor orietatik sortzen diran adizki edo adizkera ezberdiñak ikusiko ditugu, bata-bestearen parean jarriz.

SUBJUNTIBOZKO ORAINALDIA (presente berria, Azkue)
 ÑOR-NORK adizkerak (paziente-egilledunak)

		EGIN(bizkaiera)	EZAN(gipuzkoera)
		NI	NI
ZUK	(ekar)	na(g)izun	nazazun
AREK	(ekar)	na(g)lan	nazan
ZUEK	(ekar)	na(g)izuen	nazazuten
AIEK	(ekar)	na(g)len	nazaten
		ZU	ZU
NIK	(ekar)	za(g)izadan	zaitzadan
AREK	(ekar)	za(g)izan	zaitzan
GUK	(ekar)	za(g)iguzan	zaitzag un
AIEK	(ekar)	za(g)izen	zaitzaten
		URA	URA
NIK	(ekar)	da(g)idan	dezadan
ZUK	(ekar)	da(g)izun	dezazun
AREK	(ekar)	da(g)ian	dezan
GUK	(ekar)	da(g)igun	dezagun
ZUEK	(ekar)	da(g)izuen	dezazuten
AIEK	(ekar)	da(g)ien	dezaten
		GU	GU
ZUK	(ekar)	ga(g)izuzan	gaitzazun
AREK	(ekar)	ga(g)izan	gaitzan
ZUEK	(ekar)	ga(g)izuezan	gaitzazuten
AIEK	(ekar)	ga(g)izen	gaitzaten
		ZUEK	ZUEK
ÑIK	(ekar)	za(g)idezan	zaitzatedan
AREK	(ekar)	za(g)iezan	zaitzaten
GUK	(ekar)	zaig)ieguzan	zaitzategun
AIEK	(ekar)	za(g)iezan	zaitzateten
		AIEK	AIEK
NIK	(ekar)	da(g)idazan	ditzadan
ZUK	(ekar)	da(g)izuzan	ditzazun
AREK	(ekar)	da(g)izan	ditzan
GUK	(ekar)	da(g)iguzan	ditzagun
ZUEK	(ekar)	da(g)izuezan	ditzazuten
AIEK	(ekar)	da(g)iezan	ditzaten

SUBJUNTIBOZKO ORAINALDIA (presente berria, Azkue)
 NOR-NORI-NORK (paziente-egille-datibodunak)
 (NOR edo ZER batekoa, singularra)

		EGIN(bizkaiera)	EZAN(gipuzkoera)
		NIRI	NIRI
ZUK	(ekar)	dakg)idazun	dezaidazun
AREK	(ekar)	da(g)idan	dezaidan
ZUEK	(ekar)	dakg)idazuen	dezaidazuten
AIEK	(Ekar)	da(g)iden	dezaidaten
		ZURI	ZURI
ÑIK	(ekar)	da(g)izudan	dezaizudan
AREK	(ekar)	da(g)izan	dezaizun
GUK	(ekar)	da(g)izugun	dezaizagun
AIEK	(ekar)	da(g)izuen	dezaizuten
		ARI	ARI
NIK	(ekar)	da(g)iodan	dezaiodan
ZUK	(ekar)	da(g)iozun	dezaiozun
AREK	(ekar)	da(g)ion	dezaion
GUK	(ekar)	da(g)iogun	dezaiogun
ZUEK	(ekar)	da(g)iozuen	dezaiozuten
AIEK	(ekar)	da(g)ioen	dezaioten
		GURI	GURI
ZUK	(ekar)	da(g)iguzun	dezaiguzun
AREK	(ekar)	da(g)igun	dezaigun
ZUEK	(ekar)	da(g)iguzuen	dezaiguzuten
AIEK	(ekar)	da(g)iguen	dezaiguten
		ZUEI	ZUEI
NIK	(ekar)	da(g)izuedan	dezaizutedan
AREK	(ekar)	da(g)izuen	dezaizuten
GUK	(ekar)	da(g)izuegun	dezaizutegun
AIEK	(ekar)	da(g)izueen	dezaizuteten
		AIEI	AIEI
NIK	(ekar)	da(g)iedan	dezaiedan
ZUK	(ekar)	da(g)iezuen	dezaiezun
AREK	(ekar)	da(g)ien	dezaien
GUK	(ekar)	da(g)iegun	dezaiegun
ZUEK	(ekar)	da(g)iezuen	dezaiezuten
AIEK	(ekar)	da(g)ieen	dezaieten

SUBJENTIBOZKO ORAINALDIA (presente berria, Azkue)
 NOR-NORI-NORK adizkiak (paziente-egille-datibodunak)
 (NOR edo ZER askotakoa, plurala)

		EGIN (bizkaiera)	EZAN (gipuzkoera)
		NIRI	NIRI
ZUK	(ekar)	da(g)idazuzan	dezaizkidazun
AREK	(ekar)	da(g)idazan	dezaizkidan
ZUEK	(ekar)	da(g)idazuezan	dezaizkidazUten
AIEK	(ekar)	da(g)idezan	dezaizkidaten
		ZURI	ZURI
NIK	(ekar)	da(g)izudazan	dezaizkizadan
AREK	(ekar)	da(g)izuzan	dezaizkizun
GUK	(ekar)	da(g)izuguzan	dezaizkizugun
AIEK	(ekar)	da(g)izuezan	dezaizkizuten
		ARI	ARI
NIK	(ekar)	da(g)iodazan	dezaizkiodan
ZUK	(ekar)	da(g)iozuzan	dezatzkiozan
AREK	(ekar)	da(g)iozan	dezaizkion
GUK	(ekar)	da(g)ioguzan	dezaizkiogun
ZUEK	(ekar)	da(g)iozuezan	dezaizkiozuten
AIEK	(ekar)	da(g)ioezan	dezatzkioten
		GURI	GURI
ZUK	(ekar)	da(g)iguzuzan	dezaizkiguzun
AREK	(ekar)	da(g)iguzan	dezaizkigun
ZUEK	(ekar)	da(g)iguzuezan	dezaizkizuten
AIEK	(ekar)	da(g)iguezan	dezaizkiguten
		ZUEI	ZUEI
NIK	(ekar)	da(g)izuedazan	dezaizkizutedan
AREK	(ekar)	da(g)izuezan	dezaizkizuten
GUK	(ekar)	da(g)izueguzan	dezaizkizutegun
AIEK	(ekar)	da(g)izuuezan	dezaizkizuteten
		AIEI	AIEI
NIK	(ekar)	da(g)iedazan	dezaizkiedan
ZUK	(ekar)	da(g)iezuzan	dezaizkiezun
AREK	(ekar)	da(g)iezan	dezaizkien
GUK	(ekar)	da(g)ieguzan	dezaizkiegun
ZUEK	(ekar)	da(g)iezuezan	dezaizkiezuten
AIEK	(ekar)	da(g)ieezan	dezaizkieten

SUBJUNTIBOZKO LEENALDIA (presente zaarra, Azkue)
 NOR-NORK adizkerak (paziente-egilledunak)

		EGIÑ (bizkaiera)	EZAN (gipuzkoera)
		NI	NI
ZUK	(ekar)	nengizun	nindezazun
AREK	(ekar)	nengian	nindezan
ZUEK	(ekar)	nengizuen	nindezazuten
AIEK	(ekar)	nengien	nindezaten
		ZU	ZU
NIK	(ekar)	zengidazan	zintzadan
AREK	(ekar)	zengizan	zintzan
GUK	(ekar)	zengiguzan	zintzagun
AIEK	(ekar)	zengiezan	zintzaten
		URA	URA
NIK	(ekar)	ne(g)ian	nezan
ZUK	(ekar)	ze(g)ian	zenezan
AREK	(ekar)	e(g)ian	zezan
GUK	(ekar)	ge(g)ian	genezan
ZUEK	(ekar)	ze(g)ien	zenezaten
AIEK	(ekar)	e(g)ien	zezaten
		GU	GU
ZUK	(ekar)	gengizuzan	gintzazun
AREK	(ekar)	gengizan	gintzan
ZUEK	(ekar)	gengizuezan	gintzazuten
AIEK	(ekar)	gengiezan	gintzaten
		ZUEK	ZUEK
NIK	(ekar)	zengiedazan	zintzatedan
AREK	(ekar)	zengiezan	zintzaten
GUK	(ekar)	zengieguzan	zintzategun
AIEK	(ekar)	zengiezan	zintzateten
		AIEK	AIEK
NIK	(ekar)	ne(g)iazan	nitzan
ZUK	(ekar)	ze(g)jazan	zenitzan
AREK	(ekar)	e(g)iazan	zitzan
GUK	(ekar)	ge(g)iazan	genizan
ZUEK	(ekar)	ze(g)iezan	zenitzaten
AIEK	(ekar)	e(g)iezan	zitzaten

SUBJUNTIBOZKO LEENALDIA (presente zaarra, Azkue)
 NOR-ÑORI-NORK adizkiak (paz.-egil.datibodunak)
 (NOR edo ZER batekoa,singularra)

		EGIN (bizkaiera)	EZAN (gipuzkoera)
		NIRI	NIRI
ZUK	(ekar)	ze(g)idan	zenezaidan
AREK	(ekar)	e(g)idan	zezaidan
ZUEK	(ekar)	ze(g)iden	zenezaidaten
AIEK	(ekar)	e(g)iden	zezaidaten
		ZURI	ZURI
ÑIK	(ekar)	ne(g)izun	nezaizun
AREK	(ekar)	e(g)izun	zezaizun
GUK	(ekar)	ge(g)izun	genezajzun
AIEK	(ekar)	e(g)izuen	zəzatzuten
		ARI	ARI
ÑIK	(ekar)	ne(g)ion	nezaion
ZUK	(ekar)	ze(g)ion	zenezaiion
AREK	(ekar)	e(g)ion	zezaion
GUK	(ekar)	ge(g)ion	genezaion
ZUEK	(ekar)	ze(g)ioen	zenezaioten
AIEK	(ekar)	e(g)ioen	zezaioten
		GURI	GURI
ZUK	(ekar)	ze(g)igun	zenezaiGUN
AREK	(ekar)	eig)igun	zezaigun
ZUEK	(ekar)	ze(g)iguen	zenezaiGUTEN
AIEK	(ekar)	e(g)iguen	zezaiguten
		ZUEI	ZUEI
ÑIK	(ekar)	ne(g)izuen	nezaizuten
AREK	(ekar)	e(g)izuen	zezaizuten
GUK	(ekar)	ge(g)izuen	genezaizuten
AIEK	(ekar)	e(g)izueen	zezaizateten
		AIEI	AIEI
NIK	(ekar)	ne(g)ioen	nezaien
ZUK	(ekar)	ze(g)ioen	zenezaien
AREK	(ekar)	e(g)ioen	zezaien
GUK	(ekar)	ge(g)ioen	genezaien
AIEK	(ekar)	e(g)ioeen	zezaieten

SUBJUNTISOZKO LEEÑALDIA (presente Zaarra, Azkue)
 NOR-NORI-NORK adizkerak (paz.-egil.-datibodunak)
 (NOR edo ZER askotakoa, plurala)

		EGIN (bizkajera)	<u>F7AN</u> (gipuzkoera)
		NIRI	ÑIRI
ZUK	(ekar)	ze(g)idazan	zenezaizkidan
ARE	(ekar)	e(g)idazan	zezaizkidan
ZUEK	(ekar)	ze(g)idezan	zenezaizk;idaten
AIEK	(ekar)	e(g)idezan	zezaizkidaten
		ZURI	ZURI
NIK	(ekar)	ne(g)izuzan	nezaizkizun
AREK	(ekar)	e(g)izuzan	zezaizkizun
GUK	(ekar)	ge(g)izuzan	genezaizkizun
AIEK	(ekar)	e(g)izuezan	zezaizkizuten
		ARI	ARI
NIK	(ekar)	ne(g)iozan	nezaizkion
ZUK	(ekar)	ze(g)iozan	zenezaizkion
AREK	(ekar)	e(g)iozan	zezaizkion
GUK	(ekar)	ge(g)iozan	genezaizkion
ZUEK	(ekar)	ze(g)ioezan	zenezaizkioten
AIEK	(ekar)	e(g)ioezan	zezaizk;ioten
		GURI	GURI
ZUK	(ekar)	ze(g)iguzan	zenezaizkigun
AREK	(ekar)	e(g)iguzan	zezaizkigun .
ZUEK	(ekar)	ze(g)iguezan	zenezaizkiguten
AIEK	(ekar)	e(g)iguezan	zezaizkiguten
		ZUEI	ZUEI
NIK	(ekar)	ne(g)izuezan	nezaizkizuten
AREK	(ekar)	e(g)izuezan	zezaizkizuten
GUK	(ekar)	ge(g)izuezan	genezaizkizuten
AIEK	(ekar)	e(g)izueezan	zezaizkizuteten
		AIEI	AIEI
NIK	(ekar)	ne(g)ioezan	nezaizkien
ZUK	(ekar)	ze(g)ioezan	zenezaizkien
AREK	(ekar)	e(g)ioezan	zezaizkien
GUK	(ekar)	ge(g)ioezan	genezaizkien
ZUEK	(ekar)	ze(g)ioeezan	zenezaizkieten
AIEK	(ekar)	e(g)ioeezan	zezaizkieten

SUBJUNTIBOZKO BALDIÑERA, ORAINALDIA
(Flexiones hipotéticas de subjuntivo próximo, Azkue)
NOR-NORK adizkerak (paz,-egilledunak)

		EGIN (bizkaiera)	EZAN(gipuzkoera)
		NI	NI
ZUK	(ekar)	bana(g)izu	banazazu
AREK	(ekar)	bana(g)i	banaza
ZUEK	(ekar)	bana(g)izue	banazazute
AIEK	(ekar)	bana(g)ie	banazate
		ZU	ZU
NIK	(ekar)	baza(g)idaz	bazaitzat
AREK	(ekar)	baza(g)iz	bazaitza
GUK	(ekar)	baza(g)iguz	bazaitzagu
AIEK	(ekar)	baza(g)ize	bazaitzate
		URA	URA
NIK	(ekar)	bada(g)it	badezat
ZUK	(ekar)	bada(g)izu	badezazu
AREK	(ekar)	bada(g)i	badeza
GUK	(ekar)	bada(g)igu	badezagu
ZUEK	(ekar)	bada(g)izue	badezazute
AIEK	(ekar)	bada(g)ie	badezate
		GU	GU
ZUK	(ekar)	baga(g)izuz	bagaitzazu
AREK	(ekar)	baga(g)iz	bagaitza
ZUEK	(ekar)	baga(g)izuez	bagaitzazate
AIEK	(ekar)	baga(g)iez	bagaitzate
		ZUEK	ZUEK
NIK	(ekar)	baza(g)iedaz	bazaitzatet
AREK	(ekar)	baza(g)ize	bazaitzate
GUK	(ekar)	baza(g)ieguz	bazaitzategu
AIEK	(ekar)	baza(g)ieze	bazaitzatete
		AIEK	AIEK
NIK	(ekar)	bada(g)idaz	baditzat
ZUK	(ekar)	bada(g)izuz	baditzazu
AREK	(ekar)	bada(g)iz	baditza
ZUEK	(ekar)	bada(g)izuez	baditzagu
AIEK	(ekar)	bada(g)iez	baditzazute
			baditzate

SUBJUNTIBOZKO BALDINERA, ORAINALDIA
(Flexiones hipotéticas de subjuntivo próximo, Azkue)
NOR-NORI-NORK adizkiak (paz.-eg;l. datibodunak)
(NOR edo ZER batekoa, singularra)

		EGIN (bizkaiera)	EZAN (gipuzkoera)
		ÑIRI	NIRI
ZUK	(ekar)	bada(g)idazu	badezaidazu
AREK	(ekar)	bada(g)it	badezait
ZUEK	(ekar)	bada(g)idazue	badezaidazute
AIEK	(ekar)	bada(g)ide	badezaidate
		ZURI	ZURI
NIK	(ekar)	bada(g)izut	badezaizut
AREK	(ekar)	bada(g)izu	badezaizu
GUK	(ekar)	bada(g)izugu	badezaizugu
AIEK	(ekar)	bada(g)izue	badezaizute
		ARI	ARI
NIK	(ekar)	bada(g)iot	badezaiot
ZUK	(ekar)	bada(g)iozu	badezaiozu
AREK	(ekar)	bada(g)io	badezaio
GUK	(ekar)	bada(g)ioгу	badezaioгу
ZUEK	(ekar)	bada(g)iozue	badezaiozute
AIEK	(ekar)	bada(g)ioe	badezaiote
		GURI	GURI
ZUK	(ekar)	bada(g)iguzu	badezaiguzu
AREK	(ekar)	bada(g)igu	badezaigU
ZUEK	(ekar)	bada(g)iguzue	badezaiguzate
AIEK	(ekar)	bada(g)igue	badezaigute
		ZUEI	ZUEI
NIK	(ekar)	badaig)izuet	badezaizutet
AREK	(ekar)	bada(g)izue	badezaizute
GUK	(ekar)	badaig)izuegu	badezaizutegu
AIEK	(ekar)	bada(g)izuee	badezaizutete
		AIEI	AIEI
NIK	(ekar)	bada(g)iet	badezaiet
ZUK	(ekar)	bada(g)iezu	badezaiezu
AREK	(ekar)	bada(g)ie	badezaie
GUK	(ekar)	bada(g)iegu	badezaiegu
ZUEK	(ekar)	bada(g)iezue	badezaiezute
AIEK	(ekar)	bada(g)iee	badezaiete

SUBJUÑTIBOZKO BALDINERA, ORAINALDIA
(Flexiones hipotéticas de subjuntivo próximo, Azkue)
NOR-NORI-NORK adizkiak (paz.-egil. datibodunak)
(NOR edo ZER askotakoa)

		EGIN(bizkaiera)	EZAN(gipuzkoera)
		NIRI	NIRI
ZUK	(ekar)	bada(g)idazuz	badezaizkidazu
AREK	(ekar)	bada(g)idaz	badezaizkit
ZUEK	(ekar)	bada(g)idazuez	badezaizkidazute
AIEK	(ekar)	bada(g)idez	badezaizkidate
		ZURI	ZURI
NIK	(ekar)	bada(g)izudaz	badezaizkizatz
AREK	(ekar)	bada(g)izuz	badezaizkizu
GUK	(ekar)	bada(g)izuguz	badezaizkizugu
AIEK	(ekar)	bada(g)izuez	badezaizkizute
		ARI	ARI
NIK	(ekar)	bada(g)iodaz	badezaizkiot
ZUK	(ekar)	bada(g)iozuz	badezaizkiozu
AREK	(ekar)	bada(g)ioz	badezaizkio
GUK	(ekar)	bada(g)ioguz	badezaizkiogu
ZUEK	(ekar)	badakg)iozuez	badezaizkiozute
AIEK	(ekar)	bada(g)ioez	badezaizkiote
		GURI	GURI
ZUK	(ekar)	bada(g)iguzuz	badezaizkiguzu
AREK	(ekar)	bada(g)iguz	badezaizkigu
ZUEK	(ekar)	bada(g)iguzuez	badezaizkiguzute
AIEK	(ekar)	bada(g)izuez	badezaizkigute
		ZUEI	ZUEI
ÑIK	(ekar)	bada(g)izuedaz	badezaizkizutetz
AREK	(ekar)	bada(g)izuez	badezaizkizute
GUK	(ekar)	bada(g)izueguz	badezaizkizutegu
AIEK	(ekar)	bada(g)izueez	badezaizkizutete
		AIEI	AIEI
NIK	(ekar)	bada(g)iedaz	badezaizkiet
ZUK	(ekar)	bada(g)iezuz	badezaizkizute
AREK	(ekar)	bada(g)iez	badezaizkie
GUK	(ekar)	bada(g)ieguz	badezaizkiegu
ZUEK	(ekar)	bada(g)iezuez	badezaizkiezute
AIEK	(ekar)	bada(g)ieez	badezaizkiete

SUBJUNTIBOZKO BALDINERA, LEENALDIA
(Flexiones hipotéticas de subjuntivo remoto, Azkue)
NOR-NORK adizkerak (paz.-egilledunak)

		EGIN (bizkaiera)	EZAN (gipuzkoera)
		NI	NI
ZUK	(ekar)	banengizu	banindezazu
AREK	(ekar)	banengi	banindeza
ZUEK	(ekar)	banengizue	banindezazute
AIEK	(ekar)	banengie	banindezate
		ZU	ZU
NIK	(ekar)	bazengidaz	bazintzat
AREK	(ekar)	bazengiz	bazintza
GUK	(ekar)	bazengiguz	bazintzagu
AIEK	(ekar)	bazengiez	bazintzate
		URA	URA
NIK	(ekar)	bane(g)i	baneza
ZUK	(ekar)	baze(g)i (baziñei)	zeneza
AREK	(ekar)	bale(g)i	leza
GUK	(ekar)	bage(g)i (bagiñei)	bageza
ZUEK	(ekar)	baze(g)ie (baziñeie)	bazenezate
AIEK	(ekar)	bale(g)ie	balezate
		GU	GU
ZUK	(ekar)	bagengizuz	bagintzazu
AREK	(ekar)	bagengiz	bagintza
ZUEK	(ekar)	bagengizuez	bagintzazute
AIEK	(ekar)	bagengiez	bagintzate
		ZUEK	ZUEK
NIK	(ekar)	bazengidaze	bazintzatet
AREK	(ekar)	bazengiez	bazintzate
GUK	(ekar)	bazengiguze	bazintzategu
AIEK	(ekar)	bazengize	bazintzatete
		AIEK	AIEK
NIK	(ekar)	bane(g)iz	banitzat
ZUK	(ekar)	baze(g)iz (baziñeie)	bazenitza
AREK	(ekar)	bale(g)iz	balitza
GUK	(ekar)	bage(g)iz (bagiñeiz)	bagenitza
ZUEK	(ekar)	baze(g)iez (baziñeiez)	bazenitzate
AIEK	(ekar)	bale(g)iez	balitzate

SUBJUNTISOZKO BALDINERA, LEENALDIA
(Flexiones hipotéticas de subjuntivo remoto, Azkue)
NOR-NORI-NORK adizkerak (paz.-egil.-datibodunak)
(NOR edo ZER batekoa, singularra)

		EGIN(bizkaiera)	EZAN(gipuzkoera)
		NIRI	NIRI
ZUK	(ekar)	baze(g)it	bazenezaida
AREK	(ekar)	bale(g)it	balezaida
ZUEK	(ekar)	baze(g)ide	bazenezaidate
AIEK	(ekar)	bale(g)ide	balezaidate
		ZURI	ZURI
NIK	(ekar)	bane(g)izu	banezaizu
AREK	(ekar)	bale(g)izu	balezaizu
GUK	(ekar)	bage(g)izu	bagenezaizu
AIEK	(ekar)	baleig)izue	balezaizute
		ARI	ARI
NIK	(ekar)	bane(g)io	banezaio
ZUK	(ekar)	baze(g)io	bazenezaio
AREK	(ekar)	bale(g)io	balezaio
GUK	(ekar)	bage(g)io	bagenezaio
ZUEK	(ekar)	baze(g)ioe	bazenezaiote
AIEK	(ekar)	bale(g)ioe	balezaiote
		GURI	GURI
ZUK	(ekar)	baze(g)igu	bazenezaigu
AREK	(ekar)	bale(g)igu	balezaigu
ZUEK	(ekar)	baze(g)igüe	bazenezaigute
AIEK	(ekar)	bale(g)igüe	balezaigute
		ZUEI	ZUEI
NIK	(ekar)	bane(g)izue	banezaizute
AREK	(ekar)	bale(g)izue	balezaizute
GUK	(ekar)	bage(g)izue	bagenezaizute
AIEK	(ekar)	bale(g)izuee	balezaizutete
		AIEI	AIEI
NIK	(ekar)	bane(g)ioe	banezaie
ZUK	(ekar)	baze(g)ioe	bazenezaie
AREK	(ekar)	bale(g)ioe	balezaie
GUK	(ekar)	bage(g)ioe	bagenezaie
ZUEK	(ekar)	baze(g)ioee	bazenezaiete
AIEK	(ekar)	bale(g)ioee	balezaiete

SUBJUŅTIBOZKO BALDINERA, LEENALDIA
(Flexiones hipotéticas de subjuntivo remoto, Azkue)
NOR-NORI-NORK adizkiak (paz.-egil.datibodunak)
(NOR edo ZER askotakoa, plurala)

		EGIN (bizkaiera)	EZAN (gipuzkoera)
		NIRI	NIRI
ZUK	(ekar)	baze(g)idaz	bazenezaizkida
AREK	(ekar)	bale(g)idaz	balezaizkida
ZUEK	(ekar)	baze(g)idez	bazenezaizkidate
AIEK	(ekar)	bale(g)idez	balezaizkidate
		ZURI	ZURI
NIK	(ekar)	bane(g)izuz	banezaizkizu
AREK	(ekar)	baleig)izuz	balezaizkizu
GUK	(ekar)	bage(g)izuz	bagenezaizkizu
AIEK	(ekar)	bale(g)izuez	balezaizkizte
		ARI	ARI
NIK	(ekar)	bane(g)ioz	banezaizkio
ZUK	(ekar)	baze(g)ioz	bazenezaizkio
AREK	(ekar)	bale(g)loz	balezaizkio
GUK	(ekar)	bage(g)ioz	bagenezaizkio
ZUEK	(ekar)	baze(g)ioez	bazenezaizkiote
AIEK	(ekar)	bale(g)ioez	balezaizkiote
		GURI	GURI
ZUK	(ekar)	baze(g)iguz	bazenezaizkigu
AREK	(ekar)	bale(g)iguz	balezaizkigu
ZUEK	(ekar)	baze(g)iguez	bazenezaizkigute
AIEK	(ekar)	bale(g)iguez	balezaizkigute
		ZUEI	ZUEI
NIK	(ekar)	bane(g)izuez	banezaizkizute
AREK	(ekar)	bale(g)izuez	balezaizkizute
GUK	(ekar)	bage(g)izuez	bagenezaizkizute
AIEK	(ekar)	bale(g)izueez	balezaizkizutete
		AIEI	AIEI
NIK	(ekar)	bane(g)ioez	banezaizkie
ZUK	(ekar)	baze(g)ioez	bazenezaizkie
AREK	(ekar)	bale(g)ioez	balezaizkie
GUK	(ekar)	bage(g)ioez	bagenezaizkije
ZUEK	(ekar)	baze(g)ioeez	bazenezaizkiote
AIEK	(ekar)	bale(g)ioeez	balezaizkiete

AAL-ERAZKO JOKOAK
(Flexiones de modo potencial)
SUBJUNTIBOZKO ORAIÑALDIA (presente berria, Azkue)
NOR-NORK ad;zkerak (paz.-egilledunak)

OARRA :Azkue jaunaren iritziz, ondoren damaizkigun aditz-jokoak, bai egin laguntzaillearenak, eta bai ezan laguntzaillearenak, berez subjuntibozkoak izan arren indikatibozkoen zentzua eta adierazkizuna dute gaur-egun errjan, leenago erabiltzen ziran indikatibozko jatorrak (bizkaieraz doke...eta abar) galdu egin ziralako.

		EGIN (bizkaiera)	EZAN (gipuzkoera)
		NI	NI
ZUK	(eraman)	na(g)ikezu	nazakezu
AREK	(eraman)	na(g)ike	nazake
ZUEK	(eraman)	na(g)ikezue	nazakezute
AIEK	(eraman)	na(g)ikee	nazakete
		ZU	ZU
NIK	(eraman)	za(g)ikedaz	zaitzaket
AREK	(eraman)	za(g)ikez	zaitzake
GUK	(eraman)	za(g)ikeguz	zaitzakegu
AIEK	(eraman)	za(g)ikeez	zaitzakete
		URA	URA
NIK	(eraman)	da(g)iket	dezaket
ZUK	(eraman)	da(g)ikezu	dezakezu
AREK	(eraman)	da(g)ike	dezake
GUK	(eraman)	da(g)ikegu	dezakegu
ZUEK	(eraman)	da(g)ikezue	dezakezute
AIEK	(eraman)	da(g)ikee	dezakete
		GU	GU
ZUK	(eraman)	ga(g)ikezuz	gaitzakezu
AREK	(eraman)	ga(g)ikez	gaitzake
ZUEK	(eraman)	ga(g)ikezuez	gaitzakezute
AIEK	(eraman)	ga(g)ikeez	gaitzakete
		ZUEK	ZUEK
NIK	(eraman)	za(g)ikeedaz	zaitzaketet
AREK	(eraman)	za(g)ikeez	zaitzakete
GUK	(eraman)	za(g)ikeeguz	zaitzaketegu
AIEK	(eraman)	za(g)ikeez	zaitzaketete
		AIEK	AIEK
NIK	(eraman)	da(g)ikedaz	ditzaket
ZUK	(eraman)	da(g)ikezuz	ditzakezu
AREK	(eraman)	da(g)ikez	ditzake
GUK	(eraman)	da(g)ikeguz	ditzakegu
ZUEK	(eraman)	da(g)ikezuez	ditzakezute
AIEK	(eraman)	da(g)ikeez	ditzakete

AAL-ERAZKO JOKOAK
(Flexiones de modo potencial)
SUBJUNTIBOZKO ORAINALDIA (presente berr;a, Azkue)
NOR-NORI-NORK adizkerak (paz.-egil.datibodunak)
(ÑOR edo ZER batekoa, singularra)

		EGIN (bizkaiera)	<u>F7AN</u> (gipuzkoera)
		NIRI	NIRI
ZUK	(eraman)	da(g)ikedazu	dezaidakezu
AREK	(eraman)	da(g)iket	dezaidake
ZUEK	(eraman)	da(g)ikedazue	dezaidakezute
AIEK	(eraman)	da(g)ikede	dezaidakete
		ZURI	ZURI
NIK	(eraman)	da(g)iketsut	dezaizuket
AREK	(eraman)	da(g)iketsu	dezaizuke
GUK	(eraman)	da(g)iketsugu	dezaizukegu
AIEK	(eraman)	da(g)iketsue	dezaizukete
		ARI	ARI
NIK	(eraman)	da(g)ikeot	dezaioket
ZUK	(eraman)	da(g)ikeozu	dezaiokezu
AREK	(eraman)	da(g)ikeo	dezaioke
GUK	(eraman)	da(g)ikeogu	dezaiokegu
AIEK	(eraman)	da(g)ikeoe	dezaiokete
		GURI	GURI
ZUK	(eraman)	da(g)ikeguzu	dezaigukezu
AREK	(eraman)	da(g)ikegu	dezaiguke
ZUEK	(eraman)	da(g)ikeguzue	dezaigukezute
AIEK	(eraman)	da(g)ikegue	dezaigukete
		ZUEI	ZUEI
ÑIK	(eraman)	da(g)iketsuet	dezaizuketet
AREK	(eraman)	da(g)iketsue	dezaizukete
GUK	(eraman)	da(g)iketsuegu	dezaizuketegu
AIEK	(eraman)	da(g)iketsuee	dezaizuketete
		AIEI	AIEI
NIK	(eraman)	da(g)ikeoet	dezaieketet
ZUK	(eraman)	da(g)ikeoezu	dezaiekezu
AREK	(eraman)	da(g)ikeoe	dezaieke
GUK	(eraman)	da(g)ikeogu	dezaiekegu
ZUEK	(eraman)	da(g)ikeoezue	dezaiekezute
AIEK	(eraman)	da(g)ikeoee	dezaiekete

AAL-ERAZKO JOKOAK
(Flexiones de modo potencial)
SUBJUNTIBOZKO ORAINALDIA (presente berria, Azkue)
ÑOR-NORI-ÑORK adizkerak (paz.-egil.datibodunak)
(NOR edo ZER askotakoa, plurala)

		EGIN (bizkaiera)	EZAN (gipuzkoera)
		NIRI	ÑIRI
ZUK	(eraman)	da(g)ikedazuz	dezaizkidakezu
AREK	(eraman)	da(g)ikedaz	dezaizkidake
ZUEK	(eraman)	da(g)ikedazuez	dezaizkidakezute
AIEK	(eraman)	da(g)ikedez	dezaizkidakete
		ZURI	ZURI
NIK	(eraman)	de(g)iketsudaz	dezaizkizuket
AREK	(eraman)	da(g)iketsuz	dezaizkizuke
GUK	(eraman)	da(g)iketsuguz	dezaizkizukegu
AIEK	(eraman)	da(g)iketsuez	dezaizkizukete
		ARI	ARI
NIK	(eraman)	da(g)ikeodaz	dezaizkioket
ZUK	(eraman)	da(g)ikeozuz	dezaizkiokezu
AREK	(eraman)	da(g)ikeoz	dezaizkioke
GUK	(eraman)	da(g)ikeoguz	dezaizkiokegu
ZUEK	(eraman)	da(g)ikeozuez	dezaizkiokezute
AIEK	(eraman)	da(g)ikeoez	dezaizkiokete
		GURI	GURI
ZUK	(eraman)	da(g)ikeguzuz	dezaizkigukezu
AREK	(eraman)	da(g)ikeguz	dezaizkiguke
ZUEK	(eraman)	da(g)ikeguzuez	dezaizkigukezute
AIEK	(eraman)	da(g)ikeguez	dezaizkigukete
		ZUEI	ZUEI
NIK	(eraman)	da(g)iketsuedaz	dezaizkazuketet
AREK	(eraman)	da(g)iketsuez	dezaizkizukete
GUK	(eraman)	da(g)iketsueguz	dezaizkizuketegu
AIEK	(eraman)	da(g)iketsueez	dezaizkizuketete
		AIEI	AIEI
NIK	(eraman)	da(g)ikeoedaz	dezaizkieket
ZUK	(eraman)	da(g)ikeoezuz	dezaizkiekezu
AREK	(eraman)	da(g)ikeoez	dezaizkieke
GUK	(eraman)	da(g)ikeoeguz	dezaizkiekegu
ZUEK	(eraman)	da(g)ikeoezuez	dezaizkiekezute
AIEK	(eraman)	da(g)ikeoeez	dezaizkiekete

AAL-ERAZKO JOKOAK
(Flexiones de modo potencial)
SUBJUNTIBOZKO LEENALDIA (presente zaarra, Azkue)
NOR-NORK adizkerak (paz.-egilledunak)

		EGIN (bizkaiera)	EZAN (gipuzkoera)
		ÑI	NI
ZUK	(eraman)	neinkezu	nindezakezu
AREK	(eraman)	neinke	nindezake
ZUEK	(eraman)	neinkezue	nindezakezute
AIEK	(eraman)	neinkee	nindezakete
		ZU	ZU
NIK	(eraman)	zeinkedaz	zintzaket
AREK	(eraman)	zeinkez	zintzake
GUK	(eraman)	zeinkeguz	zintzakegu
AIEK	(eraman)	zeinkeez	zintzakete
		URA	URA
NIK	(eraman)	ne(g)ike	nezake
ZUK	(eraman)	ze(g)ike	zenezake
AREK	(eraman)	le(g)ike	lezake
GUK	(eraman)	ge(g)ike	genezake
ZUEK	(eraman)	ze(g)ikee	zenezakete
AIEK	(eraman)	le(g)ikee	lezakete
		GU	GU
ZUK	(eraman)	geinkezuz	gintzakezu
AREK	(eraman)	geinkez	gintzake
ZUEK	(eraman)	geinkezuez	gintzakezute
AIEK	(eraman)	geinkeez	gintzakete
		ZUEK	ZUEK
NIK	(eraman)	zeinkedaze	zintzateket
AREK	(eraman)	zeinkeze	zintzateke
GUK	(eraman)	zeinkeguze	zintzatekegu
AIEK	(eraman)	zeinkeeze	zintzatekete
		AIEK	AIEK
NIK	(eraman)	ne(g)ikez	nitzake
ZUK	(eraman)	ze(g)ikez	zenitzake
AREK	(eraman)	le(g)ikez	litzake
GUK	(eraman)	ge(g)ikez	genitzake
ZUEK	(eraman)	ze(g)ikeez	zenitzakete
AIEK	(eraman)	le(g)ikeez	litzakete

OARTU: Bizkaierazko adizkerok zerbait itxuraldaturiko daude. Jatorrak olakoak izango litzatekez: nengikezu, nengike... zengikedaz, zengikez... gengikezuz, gengikez.. eta abar. Baina erriak gaur egun olaxe itz egiten du.

AAL-ERAZKO JOKOAK
(Flexiones de modo potencial)
SUBJUTIBOZKO LEENALDIA (presente zaarra, Azkue)
NOR-NORI-NORK adizkerak (paz.-egil.datibodunak)
(NOR edo ZER batekoa, singularra)

		EGIN (bizkaiera)	EZAN(gipuzkoera)
		NIRI	NIRI
ZUK	(eraman)	zeikit	zenezaidake
AREK	(eraman)	leikit	lezaidake
ZUEK	(eraman)	zeikide	zenezaidakete
AIEK	(eraman)	leikide	lezaidakete
		ZURI	ZURI
NIK	(eraman)	neikizu	nezaizuke
AREK	(eraman)	leikizu	lezaizuke
GUK	(eraman)	geikizu	genezaizuke
AIEK	(eraman)	leikizue	lezaizukete
		ARI	ARI
NIK	(eraman)	neikio	nezaioke
ZUK	(eraman)	zeikio(ziñeio)	zenezaioke
AREK	(eraman)	leikio	lezaioke
GUK	(eraman)	geikio	genezaioke
ZUEK	(eraman)	zeikioe	zenezaiokete
AIEK	(eraman)	leikioe	lezaiokete
		GURI	GURI
ZUK	(eraman)	zeikigu	zenezaiguke
AREK	(eraman)	leikigu	lezaiguke
ZUEK	(eraman)	zeikigüe	zenezaigukete
AIEK	(eraman)	leikigüe	lezaigukete
		ZUEI	ZUEI
NIK	(eraman)	neikizue	nezaizueke
AREK	(eraman)	leikizue	lezaizueke
GUK	(eraman)	geikizue	genezaizueke
AIEK	(eraman)	leikizuee	lezaizuekete
		AIEI	AIEI
NIK	(eraman)	neikioe	nezaieke
ZUK	(eraman)	zeikioe	zenezaieke
AREK	(eraman)	leikioe	lezaieke
GUK	(eraman)	geikioe	genezaieke
ZUEK	(eraman)	zeikioe	zenezaiekete
AIEK	(eraman)	leikioee	lezaiekete

AAL-ERAZKO JOKOAK
(Flexiones de modo potencial)
SUBJUNTIBOZKO LEENALDIA (presente zaarra, Azkue)
NOR-NORI-NORK adizkerak (paz.-egil.datibodunak)
(NOR edo ZER askotakoa, plurala)

		EGIN (bizkaiera)	EZAN (gipuzkoera)
		NIRI	NIRI
ZUK	(eraman)	zeikidaz	zenezaizkidate
AREK	(eraman)	leikidaz	lezaizkikidate
ZUEK	(eraman)	zeikidez	zenezaizkidakete
AIEK	(eraman)	leikidez	lezaizkidakete
		ZURI	ZURI
NIK	(eraman)	neikizuz	nezaizkizuke
AREK	(eraman)	leikizuz	lezaizkizuke
GUK	(eraman)	geikizuz	genezaizkizuke
AIEK	(eraman)	leikizuz	lezatzkizukete
		ARI	ARI
NIK	(eraman)	neikioz	nezaizkioke
ZUK	(eraman)	zeikioz (ziñeioz)	zenezaizkioke
AREK	(eraman)	lejkioz	lezaizkioke
GUK	(eraman)	geikioz	genezaizkioke
ZUEK	(eraman)	zeikioez	zenezaizkiokete
AIEK	(eraman)	leikioez	lezaizkiokete
		GURI	GURI
ZUK	(eraman)	zeikiguz	zenezaizkiguke
AREK	(eraman)	leikiguz	lezaizkiguke
ZUEK	(eraman)	zeikiguez	zenezaizkigukete
AIEK	(eraman)	leikiguez	lezaizkigukete
		ZUEI	ZUEI
NIK	(eraman)	neikizuez	nezaizkizueke
AREK	(eraman)	leikizuez	lezaizkizueke
GUK	(eraman)	geikizuez	genezaizkizueke
AIEK	(eraman)	leikizueez	lezaizkizuekete
		AIEI	AIEI
NIK	(eraman)	neikioez	nezaizkieke
ZUK	(eraman)	zeikioez	zenezaizkieke
AREK	(eraman)	leikioez	lezaizkieke
GUK	(eraman)	geikioez	genezaizkieke
ZUEK	(eraman)	zeikioeez	zenezaizkiekete
AIEK	(eraman)	leikioeez	lezaizkiekete

OARTU: Onenbestez, EGIN eta EZAN aditz laguntzaille iragaukorrek bizkaierara eta gipuzkoerara dakarzten ezberdintasunak agirian daudela uste dut.

Gainontzeko bestelakotasunak urrengo lanean argitako ditugu.

Lan au borobiltzeko, iturri orietara jo dut. MORFOLOGIA VASCA, R. M^a Azkue: EUSKAL ADITZA-BIZKAIERA, Pedro Pujana, Bilbo, 1970; EUSKALDUNENTZAT GRAMATIKA EUSKERAZ, Fernando Mendizabal, Arantzazu, 1969.

PEDRO PUXANA, arabarrak

MANU OÑATIBIA

Sarri izaten da Gipuzkoa, guretzat, bizkaitarrentzat, euskal bizibideko gertaeren barri emole.

Egunak dira gipuzkoar euskaltzale jator bat il zala. Eta oraindik ez dogu bere ezelako barririk jakin.

Nire ustez, Oñatibia tar Manu, jaiotez oiartzuarrak, nai ta berak urte luzeak Zarautzen igaro, merezi dau illeta ondorengo agur bero eta biozkor bat.

Erraz da gaur euskaldun agertzea. Eta arro agertu ere. Irrati, telebista, egunkari, eta aldizkari idazle, liburu egille edo ta beste duintasunen baten bidez, zela alako entzutea artzea be. Ez da gaitz.

Baiña jo... jo urteetan atzera.

Zenbat ausartzen ziran euskal egunkari, irrati eta abarretan euskal agerpideak egiñaz euskal itxaropena sendotuten, orain berrogei edo geiago urtetan? Eta onuntzago ere?

Eta gu urteetan aurrera goazenok, Bizkaiko errietatik be Gipuzkoako irratia entzuteko garretan egoten giñan, andik etorten ziralako biotza berotu eta adimena argitzen ekien berriak. Orretan ggoratzen genduzan Maria Dolores Agirre, gaur be gordin bizi dan andre jatorra, Iñaki Eizmendi "Basarri" ospetsua, Zurutuza albaiterua, Manu Oñatibia, au be albaiterua, eta "Atxukale" besteen artean, mutu bizitzen jakin ez ebenak.

Danak gaurkoentzat zarrak, baiña euskera zaarrari ezta ataraten ekienak. Eta gu ere... urtetako garizuman.

Zenbat lan Manu zanak baserritarren artean, euren mesedean batetik eta euren jatortasuna eta euskal aberastasuna aldizkari eta paperetan zabaltzen.

Urteak dira. Bere anai Yon ospetzua il zanean, bere oroiz eta bere gogoala zalakoan "Saski Naski" iru illebeteroko aldizkaria kaleratzen ausartu zan. Ia irurogeta amar aletara eldu dana. Bera izan da aldizkari orren alma mater, idazleak billatzen, atea zabaltzen eta kostuei aurre emoten.

Bera izan da, baita, Eleizaren aldeko lanetan "Pastoral" ekitaldietan be buru belarri sartzeko adorea euki izan dauana, kristau zaletasunez eta ziurretik tolosar parroko baten esana gogoan erabiliaz: Euskerak bere burua salbatzea Jainko berberaren naia dala.

Eta azken urteotan, eskoletako umeei euskal dantza, joko eta abestiak erakusten bere anaiak asmatu eban ekintzen bidez zaletuta, bere izan da diska, kasete eta irudi bidezko gertaerak burutu eta egiten ausartu dana, Europatik laguntzat lortzeko alegiñetan orko eta orretazko milloiak ordaintzeko asmotan.

Bera izan da Jesus Gaztañaga Errezilgo erretore eta apaiz bultzagillea il ondoren, sortzaileetako izan ziran Euskerazaintza, Euskeraren erri akademjaren biziari eusten gogo biziz ekin dautsana, oraintsu arte erakunde orretako idazkari izanaz, eta euskera jator eta errikoari indar eta zintzotasuna emoteko, errian entzun eta erritarrengantik jasotako esaldi jatorrak batzen alegindu eta aldizkarian agertzen nekatuten ez zana.

Manu Oñatibia ez da izan gizon zaratatsu eta kaletarra. Baiña bere gogo ixil eta etengabeagaz, or agertu izan da, beti lanean, arrokeri gabe, baiña beti itxaropen-tsu, beti baikor, askotan baikortasun orrek mendetuarren, etsipenean jausi barik.

Manu euskal ameslari ixila izan da, baiña eragillea, berak lan egiñaz beste askori langille izaten erakutsi dautsana. Kosta egiten da bere lako gizonak billatu eta ziurretik, euskal ekintza eskolan igarriko da bere arnas utsunea.

Agur Manu adiskide, egun aundirarte.

Augustin Zubikarai
("Deia"n agertua)

MARIA DOLORES AGIRRE

Idazle, itzultzale, antzerki zuzendari...

Uztaillaren 26'an il zan andre andi au Donosti'n.

Gazte zalakoan, 94 urte beteta.

Errezil'en jaio 1.903 urtean, Donosti'n lan eta bizi eta bertan il, 1.997 urte onetako udan.

Irakasle ikasketak egiña zan.

Toribio Alzaga antzerkigillea maisu zuala sartu zan Donosti'ko Euskal Iztundean, akademian.

Benetan andre atsegin, langille eta edozetarako borondatetsu.

Pelay Orozko idazleak il ondoren esana: Sekula galdu bear ez lirakekeen pertsona oietako bat zan Maria Dolores. Eta Pelay'k ondo ezagutzen zuan.

Bere esanetan, gure gızaldiko 50 eta 60 urteetako amarkadan, Euskalerrian euskeraren alde lan egiten ain zail zan garaian, iru pertsona izan ziran zeregin orretan nagusitu ziranak: Jose Artetxe, Iñazio Eizmendi "Basarri" eta Mari Dolores Agirre.

Bakoitzak bere ikuspuntua zuten, baña irurak aal zutena egin eta esaten ekien. Or egoan koska. Ez egoan garai aretan nai zanik esaterik, baña ez ziran mutu geratzen esandako irurak.

Mari Dolores, Euskerazaintza sortu zanetik, lenengotatik adiskide eta gogoko izan zan.

Urteak urte Euskerazaintza'k aldi baten eratu zitun ikastoletako umeen arteko ipuin eta kontu idaz-leiaketatetan, beti gogoz artzen zuan lan gaizto eta ixileko baten ardura: epaikaritza.

Eta bere iritzia zeatz meatz eman gabe ez zan geldituko.

Bere sormeneko lanen artean ba dira antzerki txiki batzuk, baña berak atsegiñez egiten zuan lana, erdal antzerki ospetsuak euskeratzea izaten zan.

Ortik "Txalupak jaberik ez", Casona'rena; "Iturri legor" Garcia Lorca'rena; Iru-garren itza, au ere Lorca'rena; "Amal" Rabindranat Tagore'rena; "Alzate'ko jaun" Pio Baroja'rena; "Iparragirre" Guerrero'rena; Lozano'ren Oriko txoria orin..." eta abar.

Orrez gain aaztu eziñekoa da, euskerarik ia irratietan entzuten ez zan garaian, berak zelako atsegiñez itz egiten eban.

Aldi aretan inguruko irratiak euskerari eskintzen ekiezan orduak, Mari Dolores Agirre, J.M. Etxebeste, Manu Oñatibia, Enrike Zurutuza eta J.A. Arkotxa "Atxukale" ziran eta eurei esker entzun al izan ziran astean ordu banakak gure euskeran.

Luze eta asko bizi ondoren utzi gaitu Mari Dolores'ek Jaunaren deiari erantzunez.

Euskeraren munduan ari geranok, bere utsunea igarriko degu, baña bere gogozko laguntza izango degulakoan gagoz. Ortan benetan eredu on izan gendulako.

ESAERAK

Esaera bereziak

- Bazkideak etorri-ala, alkar-izketa gozoa izan zan.
- Kontuxu / Kontu egizu,
- Bizia ari baten pentsuan.
- Lurra jota egon.
- Zenbat eta urriñago, orduan eta ohea.
- Ainbat eta ainbate
- Jo ta ke.
- Lenengo ta bein.
- Ogi zuria ikusi ba'nuan ikusi, ase eziñik urteak eman nituan.
- Berriren berri.
- Esan eta egin?
- Euria da.
- Kendu adi ortik (ezetz sendoa).
- Ori egin dauanak ez dauka buru aundirik.
- Jakiña (erderazko "Claro"),
- Bat-batean (erderazko "de repente")
- Txor-txorrean (zuzter barik izketan).
- Itzetik ortzera,
- Aiko-maikoan ibilli, (estabaidan).

Esaldi jatorrak

- Joan eta etorri, kapela gorri (alperreko osterea)
- Oiñezkorik nai ez eta zaldizkorik etorri ez. (Senargai aberatsa nai dauan neskeagaitik esaten da).

Esaera traketsak—Itzulpen okerrak

- Aurki ori lanpetuta dago (está ocupado).
- Decid a vuestros *aitas* que vengan. Esaera ori oso mingarria da euskaldunen belarrietarako. Gaztelerea onetan txiroa da, frantzerak, alemanerak, anglerak eta beste izkuntza askok itz bi daukez, euskereak lez, aitak eta gurasoak esateko, baiña gaztelera bat baiño ez: Padres/aitak naiz gurasoak

Olazar